373 zenbakia. 1999ko ekainaren 25a. JARDUN

Bergarako astekaria

# Berrigara



# Auto zaharren rallya

## Domekan Bergarara helduko da

APROBETXA ITZAZU UDAKO ESKAINTZAK!
500.000
pezetarainoko deskontua izan dezakezu
Xsara edo Xantia bat erostean!


ION AUTOAK CITROËN
Amillaga 36, Bergara Tf. 943 76 47 49 / 73



# Miguel ALTUNA institutua

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0528/2/98

## 1999/2000 ikasturterako
## Hezkuntza-eskaintza

# kalitateko eskaintza



**GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**
- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena



**ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**
- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

**Ohiko matrikula epea:** uztailaren 1etik 9ra



- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

*Miguel Altuna Institutua. Ibargarai 1. Tf. 943 76 24 91 / 943 76 38 40*

***Berri gehiago nahi baduzu***
*deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu*



# Dominginak

**Xabier Azkoitia** / Apaiza

Bat batean aurrean agertu ziren: emakumezkoa, adinekoa, neoprenozko beltz koloreko "traje-baño" (garai hartan ez zen esaten bainu jantzi) baten barruan hola-hala sartuta, errespaldorik gabeko udako aulki horietako batean eserita, eta eskuetan bi orratz luze, haciendo punto! Gizon bat bere aldamenean, txankletak oinetan, milrayas bainu jantzia soinean, nakarrezko botoi eta guzti; telebista txiki bat gaurko erradarren antzeko antena batekin auto gainean, kable batez autoko bateriara jarrita, eta "topolino" bat eskuetan zeukala "tumbona" moduko batean erdi etzanda. Han zeuden biak..., ez!, laurak, zeren atzean beste bi zeuden, eserita zegoen "topolinoa" zuenaren emaztea eta semea ziur asko, paellera moduko zerbait eskuetan, "tuperbarea" galtzarbean, afari-merienda prestatzen.

Arratsaldeko zazpiak izango ziren, igandea, Etxegaratetik behera ezkerraldean geratzen den bihurgune handi baten ondoan. (Elosura bidean jarri behar duten kartel horren antzeko bat merezikoluke leku hark). Autoak gora, kamioiak behera, eta bide bazterrean zeuden laurak, autoko kristalen bestaldean. Akuariumeko piztiei bezala begiratzen genien kristalaren bestaldean zeuden lau estralurtarrei; ezin sinesturik geunden, baina une hartan bertan gure aurrean genituen "antolatutako aisialdi zibilizaziotik" kanpo geratu diren alde bakarretako batzuk. Yetia aurkitu izan bagenu bezain pozik ginen, eta eskerrak mobila ez genuela, bestela "Jak Custo"ri deitu eta...; Ah ze programa egin zitekeen!

Zin egiten dut, ikusitakoa egia dela, "Forfiesta" hori hartan gindoazen lagunak gara lekuko, baina ez genuen eskuetan turista arrunt batek daraman, Andorratik edo Kanarietatik ekarritako argazki edo bideo kamara digital horietako bat.

*"Domingin gutxi ikusten dira; lantegietan jarri duten laugarren erreleboak zerikusirik ba omen du. Baina beraiekin bukatzen ari dena ez omen da hori, birus bat baizik, Antolatutako Kontsumozko Aisialdia"*

Gainera, nola kontatu hau munduari? Nola sinestuko ziguten une hartan Garbera edo Ilunbeko parajeetan ibiltzeko eboluzionaturik dauden gure espezie berdineko ezagunei? Nola adierazi, posible zela oraindik munduaren gainean topatzea igande arratsalde batean zentrotik kanpo norbait? (Gaur gehiena zentroa da; zentro-eskuma; zentro-ezkerra, zentro-komertzial...).

Liburuei esker, jakin genuen bazela antzeko espezie bat "Domingueroak" deitua, baina guk ikusitakoak ez ziren zeharo horietakoak eta, gainera, euskaraz jarrita ez zen oso polita geratzen: "Iganderoak". Beraz, guk geuk izena jartzea erabaki genuen, eta "Dominguero"-en azpiespezie bat izan daitezkeela kontuan izanik, "Dominginak" deitu genien.

Gutxi ikusten dira; itxura, lantegietan jarri duten laugarren erreleboak zerikusirik ba omen du; igandeetan lan egin beharrak ere bai; baina, dirudienez, beraiekin bukatzen ari dena ez omen da hori, birus bat baizik, Antolatutako Kontsumozko Aisialdia. Norbaitek birus hori detektatu nahi badu, oso erreza omen da: gai ez izatea aisialdiko ekintzarik egiteko zerbait kontsumitu gabe. ■


barruan



**J. Carlos Vicente**
Kazetaria
***"Kirol guztien artean dopingaren inguruan batasuna egotea derrigorrezkoa da"***
8.



**Xabier Lijo**
Maratoi antxintxikalaria
***"Anetoko maratoia gertatzeko astean bost aldiz entrenatu dut urte erdiz"***
25.



**Maite Barrena**
Dantzari izandakoa
***"Oingo dantzarixak hobeto gertauta dare, baina naturalidade faltia somatzen dot"***
33.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1889.*** Ekainaren 28an Pedro Zabala Garai jaio zen Barrenkalea 25ean. Jose Antonio Zabala Bergarako alkate izandakoaren aita, euskaltzain urgazlea eta euskal toponimiaren ikertzailea izan zen besteak beste.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1356.*** Ekainaren 27an Elorriok herri nortasuna bereganatu zuen.

***1835.*** Ekainaren 23an Tomas Zumalakarregi hil zen Zegaman, Bilbon jasotako zaurien ondorioz.

***1937.*** Ekainaren 25ean Lauaxeta poeta afusilatu zuten Gasteizen.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1981.*** Ekainaren 22an Madrileko kongresuak Dibortzioaren Legea onartu zuen.

# zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 18**
11-20-28-31-35-43 (osag.15/itz.6)

**Astelehena 21**
1-18-26-33-41-46 (osag 2/itz.0)

**Martitzena 22**
14-21-24-36-42-44 (osag.35/itz.6)

**Eguaztena 23**
1-8-22-26-32-36 (osag.2/itz.2)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 19**
6-19-23-31-33-39 (osag.41/itz.2)

**Domeka 20 *Saritzarra***
2-7-8-27-45-47 (osag.9/itz.8)

**ONCE**

**Eguakitza 18:** 46.759 (187 seriea)
**Astelehena 21:** 06.390
**Martitzena 22:** 83.383
**Eguaztena 23:** 18.008

**BESTE BATZUK**

**M. Lagundiko ikasbidaia, bi lagunendako afaria:** 3.085

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Astean zehar eguraldi eguzkitsua izan arren, asteburuan hodeiak nagusituko dira eta euria egingo du. Bestalde, tenperaturak behera egingo du eta haizeak mendebaldetik joko du arin. Astelehenean zertxobait hobetuko du.

## Ilargiaren aldiak

Ilgora: ekainak 20
Ilbete: ekainak 28
Ilbehera: uztailak 6
Ilberri: ekainak 13

## Eguzkia

*Domeka, ekainak 27*

Sortu: 06:49
Gorde: 21:51

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. ºC | min. ºC | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 17** | 21 | 16 | *12,5* |
| **Eguakitza 18** | 17 | 16 | *0,2* |
| **Zapatua 19** | 18 | 14 | *0,4* |
| **Domeka 20** | 20 | 15 | - |
| **Astelehena 21** | 17 | 14 | - |
| **Martitzena 22** | 22 | 11 | - |
| **Eguaztena 23** | 26 | 9 | - |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Askotza**

Modu honetan beti: *askotzaik ez.* Kantidade handirik ez.

*- Perretxikuak egon bazeren, baiña askotzaik ez.*

*- Jentia etorri zan, baiña askotzaik ez.*




# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Argirik ez denean idazteko

Power-Glow izeneko boligrafoa aurkeztu berri da. Boligrafoaren bereizgarritasuna argia egiteko duen gaitasuna da, ilunpetan ere idatzi ahal izateko. Filamenturik ez darabilen argiaren kolorea berdea edo gorria izan daiteke, aukeran. Gainera, boligrafoaren gainaldeko pieza atera egin daiteke, hartara, literna moduan erabiltzeko. 2.500 pezetatan dago salgai.

## Farmaziak

**Eguakitza 25:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Zapatua 26:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Domeka 27:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Astelehena 28:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

**Martitzena 29:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Eguaztena 30:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Eguena 1:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

## Ogia

**Domeka 27:** Konde.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

# zorion agurrak



**Julen Sanchez**
Ekainaren 28an
4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Olaia.



**Xabi Berasategi**
Ekainaren 25ean
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Libe San Miguel**
Ekainaren 30ean
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ainhoa Arrondo**
Ekainaren 27an
19 urte. Urte askotarako! Bartzelonako lagunak.



**Ane Miren Zabala**
Ekainaren 27an
18 urte. Urte askotarako! Gurasoak, ahizpa eta amama.



**Julen Urtaza**
Ekainaren 25ean
3 urte.
Urte askotarako!
Amama eta izebak.



**Jabi Lucena**
Ekainaren 27an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Maite Alberdi**
Ekainaren 25ean
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Lierni Azpeitia**
Ekainaren 28an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Janire Urbieta**
Ekainaren 28an
14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Martin Oteiza**
Ekainaren 26an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**German Lazkano**
Ekainaren 28an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aitor eta Ainhoa.



**Iraide Birumbrales**
25ean 11 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Aniotz.



**Aintzane Olabarria**
Ekainaren 27an
7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

*Datorren asteko alean* ***UZTAILAREN 2****a eta* ***8****a bitartekoen zorion agurrak argitaratuko dira.*

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.

ARDATZA
Brikolaketa
Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak
Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

## hildakoak

**BERGARA**
**Ignacio Plazaola Gantxegi**
Ekainak 22, 83 urte

## jaiotakoak

**BERGARA**
**Joseba Diez Urzelai**
Maiatzak 20
**Unai Arietaleanizbeaskoa Miota**
Ekainak 16

## mezak

**Santa Marina**
Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
**San Pedro**
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
**Osintxu**
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
**Elosu**
Domekak: 10:00.
**Ubera**
Domekak: 10:30.
**San Juan**
Domekak: 11:00.
**Basalgo**
Domekak: 13:00.
**San Prudentzio**
Domekak: 10:30.
**Labegaraieta**
Domekak: 11:00.
**San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.
**Angiozar**
Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.
**Monja Zaharrak**
Domekak: 19:30.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
**Mizpirualde**
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
**Mariaren Lagundia**
Domekak: 10:00.
Zapatuak eta lanegunak: 09:00.
**Antzuola**
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
**Uzarraga**
Domeka: 10:00.

**URTE-MEZAK**
**Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.
**San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.

## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.
**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.
**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)
**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.
**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.
**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.
**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.*
**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*
**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.
**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45,15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.
**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaiegunak:* 10:05, 19:35.
**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Laneguneten:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.
**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaieg.:* 18:00, 20:45.
**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 16:30.
**Bergara-Bilbo.** *Lanegunak:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaiegunak:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.
**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

## MUSIKA

**Udal Bandaren kontzertua** domekan, hilak 27, 12:30etan Mariaren Lagundiko patioan, ikastetxearen sorreraren 200. urteurreneko ospakizunen barruan. Programa: *Juana Lestonnacekoaren ereserkia* (Eustaquio Azkarate), *La giralda* (pasodoblea, Serrano), *La flauta encantada* (obertura, Mozart), *San Martzial* (euskal estanpak, Miguel Glez. Bastida) eta *A sentimental selection* (P. Scheffer).

**All eta I Against I** taldeak domekan 20:00etan Jam aretoan.

## ERAKUSKETAK

**Azurren argazkiak** eta Benita Gallastegiren olioak Nahikari tabernan.

**Jesus Mari Lazkanoren "Denborez" margo erakusketa** Bilboko Rekalde aretoan, abuztuaren 29ra arte.

**Bedelkarrek antolatutako eskulan erakusketa** bihar, zapatua, hilak 26, San Martin plazan eta Simon Arrietan. Jarduneko trikitilariek alaituta. Eguerdian, bi pertsonendako **Veneziara joateko bidaia** zozketatuko da.

**Aritzeta abesbatzaren** 20. urteurrenean, hogei urte hauei errepasoa ematen dien erakusketa Kultur Etxean.

## Auto zaharren rallya

**Domekan, ekainak 27, 11:30etan plazan**

Durangoko Escuderia Oiz taldeak antolatutako auto zaharren "Loiola Rally"a bisitari izango dugu domekan Bergaran. Rallyaren 8. edizio hau klasiko deportiboei zuzenduta dago: 35 urte baino gehiagoko turismoek, 30 urtetik gorako turismo haundiek eta gutxienez 25 urte dituzten kotxe deportiboek hartuko dute parte. Joseba Ormazabal eta Aintzane Bideluze bergararrek Triumph Spiffite 1973ko kotxearekin hartuko dute parte. Rallya bi etapatan jokatuko da: zapatuan Arrasate eta Tolosaren arteko ibilbidea bete beharko dute motorzaleek, lehen eta bigarren sektoreak Durangon eta Loiolan bukatuko direlarik. Anoetara arratsaldeko 8etan heldu orduko 270 kilometro egingo dituzte.

Domekan, berriz, rallyko bigarren eta azken etapa jokatuko da, Tolosatik Arrasatera artekoa. Tolosatik 9:30etan abiatuko dira eta, antolatzaileen kalkuluen arabera, 11ak aldera Gorlatik behera jeisten hasiko dira. Goizeko 11:30etan iritsiko litzateke lehenengo autoa San Martin plazara eta, honen atzetik, gainontzeko guztiak, banan banan eta minutuero. Autoak heltzen doazen neurrian, jendearentzako ikusgai izango dira plazan. Modelo klasikoak ikusteko aukera paregabea izango dute bertaratuek. Eguerdiko 12:30etan, berriz, plazatik Angiozarrerako bidea hartuko du lehenengo autoak, handik Arrasatera abiatzeko. Rallya ordubata eta erdiak aldera bukatuko da Arrasaten eta sari banaketa arratsaldeko lauretan egingo da. "Loiola Rally"ko lehen edizioa 1976an jokatu zen eta azken edizioa, berriz, 1994an.



Aintzane Bideluze eta Joseba Ormazabal bergararrak ere izango dira.

## LEHIAKETAK

**Aramaioko Sagitario Saria**, bidaiari haundien literatur lehiaketa. Gutxienez Europako mendebaldera bidaiatu duen edozein pertsonak har dezake parte eta egileak bidaian zehar bizitakoak kontaketa literario batean aurkeztu beharko ditu. Euskara eta gaztelerazko modalitateak bereiztuko dira eta kategoria bakoitzeko kontaketa onenak 120.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak (40 orrialdekoak gehienez) aurkezteko epea irailaren 16an bukatuko da. Argibideak 945 44 50 16 zenbakian.

**Txiste lehiaketa.** Soraluzeko San Andres auzoko jaiak direla eta, txiste lehiaketa antolatuko dute uztailaren 10erako. Gaueko 9etarako afa-

**ETXAGI JATETXEA**
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34
**ZABALETA ERROTULOAK**
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

*Paper pintatuak - Pinturak*
**A. ZANGITU**
*ORDUTEGIA: 8.00-13.00 eta 15.00-20.00*
☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

ria iragarri da eta afal ostean erromeria Eztanda taldearekin. Erromeriaren atsedenaldian goizaldeko ordubatean hasiko da lehiaketa. Izen-ematea San Andres elkartean egingo da, egun berean, gaueko hamabiak aurretik. Parte hartzen duten guztientzat oilaskoa eta txanpaina izango dira, eta gainera, bi sari nagusi izango dira: 15.000 pezetakoa txisterik onena kontatzen duenarentzat eta 10.000 pezetakoa plazentziar kutsua ondoen erabiltzen duenarentzat.

# IKASTAROAK

▶ **Udako Euskal Unibertsitatea**, Miarritzen uztailaren 5etik 9ra eta Iruñean uztailaren 19tik 30era. Bergarako Udalak ikastaroen matrikula ordaintzeko laguntzak ematen ditu. Argibideak 943 77 91 66 zenbakian.

▶ **Karate klaseak doan** uztailean, 7 urtetik gorakoentzat. Argibideak Udaleko Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

# DEIAK

▶ **Akulu AEK euskaltegian EGAko ikastaroak uztailean**, goizez. Argibideak 943 76 05 18 zenbakian.

▶ **Musika Eskola**. Datorren ikasturterako matrikula epea eguaztenera arte izango da zabalik. 943 76 57 80.

▶ **San Martzial**. Erromeria pasa ondoren, Diputazioak jarritako mahaiak bakarrik gelditukodira, gainerako guztiak kendu egingo dira. Bestalde, egun horretarako mahaiak Kultur Etxean har daitezke, 17:00etatik 21:00etara.

# JAIAK

▶ **San Martzial eguna** eguaztenean, hilak 30. Goizeko 7:30etan Santa Marinatik San Martzialera igoera egingo da, letania errezatuz. Ondoren, meza San Martzialen eta bukaeran txokolatada. Eguerdian jubilatuen bazkaria (txartelak San Joxepe elkartean).

▶ **Azoka Nagusiko jaiak Elgetan**. Zapatuan, hilak 26, arrantza lehiaketa Asentzion, 11:00etan eta buztigintza erakusketa uztailaren 4ra bitartean Bustigintza gelan. Uztailaren 1ean, buruhandiak 14:30etan, haur parkea 15:30etan, Kristina eta Amaia taldearekin erromeria 22:30etan, zezen suzkoa gauerdian eta jarraian rock kontzertua Gaztetxean. Uztailaren 2an, Meza Nagusia 12:00etan, ordubietan jubilatientzako bazkaria Ozkarbi elkartean, Trapu Zaharra antzerki taldearen "Aberia" kale antzerkia 17:00etan, 18:30etan zezen txikiak eta pottokak, 20:00etan bolo txapelketa, Kiñu taldearekin erromeria 23:00etan eta rock kontzertua Gaztetxean. Egun guztian zehar Los Incansables txaranga.

# ZINEA

## KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**

**Todo sobre mi madre**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Estacion Central de Brasil**
Eguakitza: 22:00.

**Todo sobre mi madre**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**EIBAR. Unzaga**

**American history X**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**El guru**
Zapatua: 17:00

**EIBAR. Rialto**

**Como caido del cielo**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**

**Todo sobre mi madre**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**AZKOITIA. Baztartxo**

**Caricias**
Eguakitza, zine-kluba: 22:00.

**Cookie´s fortune**
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

**OÑATI. Santana**

**Ejecucion inminente**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**TODO SOBRE MI MADRE**
***Zuzendaria:*** *Pedro Almodovar.*
***Aktoreak:*** *Cecilia Roth, Marisa Paredes, Penelope Cruz.*
Canneseko Zine Jaialdian zuzendaritza onenaren saria irabazi berri du Almodovarrek. Greziako esaera zahar baten arabera euren malkoekin aurpegia garbitu izan duten emakumeek argi ikusteko ahalmena dute. Kotxe batek bere semea harrapatu zuenetik *Manuela*k (Cecilia Roth) etengabe egin du negar; hala ere, etorkizuna ilun ikusten jarraitzen du. *Manuela* bere semea ezagutu ez zuen aitaren bila joango da Bartzelonara. Dena den, ez zaio hain erreza gertatuko aita Bartzelonan topatzea...




**AMERICAN HISTORY X**
***Zuzendaria:*** *Toni Kaye.*
***Aktoreak:*** *Edward Norton, Edward Furlong, Beverly D'Angelo, Avery Brooks.*
Gaur egun Estatu Batuetan bizi diren arrazismo egoerei buruzko erreflesioa planteatzen duen filmea. Oscarretarako izendapena Edward Norton (*Todos dicen I love you*) aktorearentzat.

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!
Zatoz eta informa zaitez!
LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tf. 943 76 16 63

# JOSE CARLOS VICENTE
Kazetaria

# "Kirol guztien artean dopingaren inguruan batasuna egotea derrigorrezkoa da"

**Jose Carlos Vicente bergarar kazetariak (28 urte) gertutik ezagutzen du txirrindularitza mundua. Lau urtez "Ciclismo a fondo" aldizkarian izan zen lanean eta beste hainbat mediotan ere txirrindularitzako informazioa jorratu du. Zeresan ugari eman du azkenaldian txirrindularitzak eta, Tourraren atarian, Jose Carlosen ikuspuntua jakin nahi izan dugu.**

**G.** Zein iritzi daukazu dopingaren kontra egiten ari den borrokaz?

**E.** Penagarria da, ez dopingaren kontrako borroka bera, baizik eta txirrindularitzan horrelako kasuak ematea. Dena den, gauzak ez dira modu egokienean egiten ari; alde batetik, dagoena baino doping gehiago dagoela ematen duelako eta, bestetik, gauzak ez direlako behar bezala azaltzen. Jendeak jakin behar du positibo ematen duten produktuen artean edozeinek katarroren bat osatzeko hartzen dituenak daudela. EPOren kontuarekin, horrelako kasuak daudela sinistu beharko dugu, baina beste askotan zalantza asko dago.

**G.** Zela esplikatzen duzu Giroa irabazteko bezperan Pantanirekin gertatutakoa?

**E.** Ez dauka esplikaziorik, kontrolak pasatzea tokatuko zitzaiola bazekielako. Hematokrito tasa gehiegizkoa zuen eta legea guztientzat berdina da. Javier Otxoa etxera etorri behar izan zen eta iaz 4. tokian zihoan Nicola Micelik ere ez zuen Giroa amaitzerik izan. Oso arraroa da Pantanirena, baina argi dago baita bera izan dela onena.

**G.** Noiz eta zela bukatuko da dopingaren kontrako auzia?



Jose Carlos Vicente Lucho Herrera kolonbiarrarekin, 1996an Covadongan.

**E.** Ez zaio amaierarik ikusten. Lehenbizi dopinga kontrolatzeko metodoak hobetu behar dira, debekatuta dauden sustantzi guztiak detektatu ahal izateko. Kirol guztien artean gai honen inguruan batasuna egotea ere derrigorrezkoa da. Era berean, federazio ezberdinak eta UCI elkarlanean aritu beharko lirateke.

**"Dopingaren auziari ez zaio amaierarik ikusten. Dopinga kontrolatzeko metodoak hobetu beharra ikusten dut lehendabizi"**

Bestalde, argi dago Tourraren metodoak ez direla onenak. Virenqueri ez diote lagatzen parte hartzen, oraindik ere ez duenean inoiz positiborik eman eta, aldiz, 9 hilabeteko zigorra bete berri duen Casagrandek korritzeko aukera dauka. Gontchar-en taldeak ere ezetza jaso berri du, hiru taldekidek gehiegizko hematokrito tasa izateagatik. Manolo Saizena ere ulertezina da, kontuan izanda gainera ONCEkoek ez dutela sekula positiborik eman. Tourrak komeni zaiona egiten du.

**G.** Izango dituen bajekin, zer nolako interesa du aurtengo Tourrak?

**E.** Tourra bukatutakoan inor ez da akordatuko egon ez direnekin. Delgadok irabazi zuenean ere ez zen partaidetza onena izan, baina palmaresean bera dago. Tourrean beti irtetzen dira korredore interesgarriak eta aurten Julich iparamerikarra, Boogerd holandarra, Rinero italiarra, Olano edo Escartin aurrean izango dira. Irabazle berria izango du Tourrak eta horrek bere alizientea dauka. Olanok erlojuaren kontra lortzen duen abantailari etekina ateratzeko oso aukera ona dauka.

**G.** Euskadi-Euskaltel taldea ez da Tourrean izango azkenean...

**E.** Aurten denboraldi bikaina egiten ari da eta lortutakoari eusten badiote helduko da Tourrera joateko aukera. Horretarako Alberto Martinez eta destakatzen ari diren gainerakoak taldean mantentzea ezinbestekoa da. Profesionalez ari gara eta eskaintza hobeak jasotzekotan normala da alde egitea. Lehengo filosofiarekin ia ezinezkoa zen puntuan egotea, baina Euskaltel bezalako babesle batek proiektua sendotu egiten du. B

# Angiozartarrek lau urterako alkatea aukeratu zuten joan zen domekan

## Mila Elortza liburutegiko arduraduna izango da auzo alkate berria

**Mila Elortza izango da Angiozarko alkate berria. Joan zen domekako bozketen ondoren, martitzenean bildu zen Angiozar Bailarako Batzordea eta Mila Elortza liburutegiko arduraduna aukeratu zuen alkate.**



Botoa emateko eskubidea zuten 272 auzokideetatik, 195 lagunek eman zuten domekako bozketetan.

Uztailaren 3an Bergarako Udalbatza berria osatu eta gero, Angiozarko auzo alkate berria onartuko du Bergarakoak.

Joan zen domekan Angiozarren izandako hauteskundeetan Mila Elortzak eta Venedicto Ugartek berrogeina boto jaso zituzten. Martitzenean bildu zen batzorde berria eta Venedictok alkate karguari uko egin zion oso lanpetuta dagoela argudiatuz. Honenbestez, Mila Elortza aukeratu zuten alkate. Angiozar Bailarako Batzarra honako hauek osatuko dute: Goimenditik, Jon Lopekoak eta Juan Migel Zuluetakoak; Zabaletamenditik, Asun Zabaleta Gainekoak eta Sebastian Zabaleta Azpikoak; Mainddaotik, Jose Mari Menditxikoak eta Venedicto Irubekoak; Parteittitik, Lore Altzuarangoak eta Jose Mari Zabartekoak; Azkunetatik, Eneko Aldekonakoak eta Iñigo Berrandonakoak; Errekaldetik, Agurtzane Loidikoak eta Angel Mari Loidi Etxeberrikoak; Asentziotik, Jose Luis Jarikotxokoak eta kaletik, Jose Angel Arriaranek, Igor Agirrezabalek, Jose Angel Mikeok eta Ainhoa Larrañagak.

Bozketa eguna normaltasun osoz igaro zen. Saloiko hauteslekua goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte izan zen zabalik eta botoa emateko eskubidea zuten 18 urtetik gorako 272 auzokideetatik 195 lagunek eman zuten. Beraz, parte hartzea %72koa izan zen.

Alkate berriak ofizialki San Migel egunean hartuko du kargua, elizpean egingo den ekitaldian. Gorka Elortzak, orain arteko alkateak, Mila lehengusinari emango dio makila eta honek hurrengo lau urteetarako hartuko du kargua. Bere zeregin nagusia etxebizitzen arazoari irtenbidea ematea izango da. "Bertan bizitzen jarraitzea eta herriak irautea nahi badugu, ezinbestekoa da etxebizitza berriak eraikitzea" esan digu Mila Elortzak. Bestalde, San Migeletan frontoi berria inauguratuko da eta Nikolas Agirrezabal zenaren omenezko ekitaldiak antolatuko dira. Horrez gain, Beheko kalearen obrak amaitzea eta Mainddaora ura eramatea izango dira epe erdira Angiozar Bailarako Batzordearen zeregin nagusiak. B

IRURAK PINTURAK O.E.
ERA GUZTIETAKO LANAK | PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA | HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA | IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA



Erreka bideratzeko lanak ia amaitu ostean, San Antonio ingurua urbanizatzen ari dira egun hauetan.

# Hilabete barru amaituko dira Uhola bideratzeko lanak

## Hasieran uste baino gehiago luzatu dira obrak

**Antzuolatik datorren** Uhola erreka bideratzeko San Antonion egiten ari diren lanak hilabete barru amaitzea espero dute. Errekaren bideratze lanak ia amaituta dituzte eta, une honetan, ingurua urbanizatzen ari dira. Bestalde, Urteaga kaleko 8. zenbakiko etxea bota egingo dute aurki. Etxea bota eta gero geratzen den hutsunea ere urbanizatu egin beharko dute.

Uhola errekaren bideratze lanak hasieran uste baino arazo gehiago sortu ditu. Obrak iazko uztailean hasi zituzten eta lanak amaitzeko hasieran aurreikusitako epea 9 hilabetekoa bazen ere, urtebetera joango gara lan guztiak amaitzen direnerako. Gogoratu behar da, gainera, iazko azaroan zazpi langile zaurituta gertatu zirela, langileek aldatzeko erabiltzen dituzten kasetak lubiziak maldan behera eraman zituenean. Horrez gain, San Antonioko bidegurutzea luzaroan itxita izan da eta horrek makina bat arazo eta eragozpen sortu die San Antonio bertako zein Martoko eta Zubiaurreko bizilagunei.

Uhola errekaren bideratze lanek 262 milioi pezetako aurrekontua izan dute. Arregi aroztegiaren parean hasi eta Deba ibaiarekin bat egiten duen arteko zatia, 470 metroko tartea, bideratu dute.

### Turismo Bulegoa gaur, eguakitza, zabalduko da

**Gaur, eguakitza**, zabalduko da Turismo Bulegoa eta irailaren 5ean itxiko da. Egunero izango da zabalik 10:30etatik 14:30etara eta 16:30etatik 19:30etara; domeka eta jai egunetan, 11:30etatik 14:30etara. Bestalde, herriaren sarreretan turismo panelak jartzeko jestioak bizkortu nahi ditu Udalak. Eusko Jaurlaritzak plangintza onartuta dauka, baina seinaleak Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurretan errepide ertzean jarri behar direnez, azken onen onespena behar du Udalak panelak jartzeko.

### Tavexek planta berria zabaldu du Marokon

**Tavex taldeak** Marokon duen Setavex lantegian planta berri bat jarri du martxan. Helburua, Marokoko eta Afrikako iparraldeko beste herrialde batzuetako merkatua berenganatzea da. 3.500 milioi pezeta inbertitu ditu. Tavexek 1.846 milioi pezetako irabaziak izan zituen iaz.

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

LONBIDE
OINETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

# Hirugarren munduari laguntzeko sei milioi pezeta bideratuko ditu Udalak

**Bergarako Udalak 6 milioi pasatxo pezeta banatuko ditu aurten hirugarren munduari laguntzeko lan egiten duten erakundeen artean.**

5.580.000 pezeta kooperazio proiektuak laguntzeko banatuko ditu hiru erakunderen artean eta beste 620.000 pezeta sentsibilizazio proiektuetarako. Kopuru hori ere gobernuz kanpoko hiru erakunderen artean banatuko da.

Udaleko Osasun, Enplegu eta Gizarte Arazoetako batzordeak urtero banatzen dituen diru laguntzetarako deialdira 12 proiektu aurkeztu dira aurten. Kooperazio proiektuetarako bederatzi erakunde aurkeztu dira, eta hiru hauek izan dira puntuazio altuena lortu dutenak: Komite Internazionalistak, Fisc Euskal Herria eta Oscar Romero Solidaritza Batzordea. Hirurek puntuazio bera lortu dutenez, dirulaguntza hiruren artean, zati berdinetan, banatu da. Ondorioz, 1.860.000 pezetako dirulaguntza jasoko du erakunde bakoitzak.

Bestalde, hiru sentsibilizazio kanpaina aurkeztu dira, erakunde hauenak: Komite Internazionalistak (10 puntu), Unicef Euskal Herriko Batzordea (7 puntu) eta Mugen Gainetik (6 puntu). 620.000 pezetak era honetan banatu dira: 272.800 pezeta lehenengoari, 186.000 bigarrenari eta 161.200 hirugarrenari.

### ZERTARA BIDERATUKO DA DIRUA?

Bergarako Udalak zein beste herri batzuetako udalek eta erakunde publikoek banatutako diruarekin 20 etxebizitza eraikiko ditu Komite Internazionalistak Nikaraguako Leon probintziako Malpaisillo herriskan. Fisc erakundeak, berriz, komunitate bat eraikiko du Managuako Ciudad Sandinon. Oscar Romerok, azkenik, Mitch haize erauntsiak kaltetutako familientzako etxebizitzak eraikiko ditu El Salvadorren.

Sentsibilizazio kanpainei dagokienez, Unicef erakundeak erakusketa bat antolatuko du Bergaran herritarrei haurren errealitatea ezagutzera emateko; Komite Internazionalistak Hego eta Erdiko Amerikako herrialdeei buruzko hainbat jardunaldi antolatuko ditu eta Mugen Gainetik erakundeak, azkenik, Guatemalari buruzko erakusketa bat egingo du. Zehazteke daude ekitaldien egunak.



Oscar Romero taldeak bultzatuta, Ertamerikan etxeak eraikitzen.

**KOOPERAZIO PROIEKTUAK: 5.580.000 PTA**

| | | |
|---|---|---|
| Komite Internazionalistak | 9 puntu | 1.860.000 PTA |
| Fisc Euskal Herria | 9 puntu | 1.860.000 PTA |
| Oscar Romero Solidaritza Batzordea | 9 puntu | 1.860.000 PTA |
| Serso-San Viator | 7 puntu | |
| Asoc. Vasca Solidaridad Internacional | 6 puntu | |
| Asociacion Euskadi-Cuba | 6 puntu | |
| Mugen Gainetik | 5 puntu | |
| Manos Unidas | 5 puntu | |
| Asoc. Cultural Euskadi-Cuba Jose Marti | 3 puntu | |

**SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK 620.000 PTA**

| | | |
|---|---|---|
| Komite Internazionalistak | %44 | 272.800 PTA |
| Unicef | %30 | 186.000 PTA |
| Mugen Gainetik | %26 | 161.200 PTA |

IGARO
✔ Kosmetika eta oparigaiak
✔ Eder gela
✔ Bio Solariunma
Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27

IBARGURENEN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
Biona BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

# Berrigara

373 zenbakia.
1999ko ekainaren 25a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Tim Andrew.

Tirada: 5.200 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599


BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** — **Gipuzkoako Foru Aldundia** — **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


## gutunak

*Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### AUPA HERRITARROK!

Nahiz eta ETA gure erakundeak irailaren 16an su etena iragarri izan, argi dago etsaia ez dagoela treguan, ez kalean eta ezta barruan, espetxeetan ere ez. Atxiloketa masiboei, mihaketa indiskriminatuei, Geresta gure lagunaren erahilketari,... espetxeetako euskal preso politikoen egoera gehitu behar zaie. Horren adibide argia hementxe bertan, Herrera de la Manchan, daukagu. Hemen, Euskal Presoak Euskal Herrira ekimena hasi zenetik 3 urte igaro direnean, eta ekimenaren hasieratik, hainbat ekintza burutu ditugu, batez ere azken urte eta erdian. Besteak beste, moduluetako hormetan pintadak egin, enkarteladak, euskal presoak Euskal Herriran elkartzea eskatuz kamisetak eta petoak jantzi, planteak, txapeoak, e.a.

Ondorioz jaso ditugun zigorrak asko izan dira, bai kopuruz zein isolamendu egunei dagokionez ere. Adibide gisa, azken hilabete hauetan Herrera de la Manchan gauden 20 presoen artean 1.000 egundik gorako zigorra jaso dugu isolamendu ziegetan. Dena, dispertsioaren ilegaltasuna eta Euskal Herriaren aurkako gerra zikina salatzeagatik.

Hau guztia gutxi balitz, espetxe barruan ere dispertsatu egin gaituzte, gure bizi erregimena gogortuz. Baina, batez ere, Herrerako 20 presoak 8 modulutan zehar sakabanatu gaituztela salatu nahi dut. Orain binaka edo hirunaka gaude, eta ezin dugu elkar ikusi. Modulu honetan 3 kide gaude, "hildako" patio batera ateratzen gaituzte, hirurok bakarrik. Patio honek ez du aterperik euria egiten duenerako, beraz, euria egiten duenean, edo busti edo txabolora joatea baino ez zaigu gelditzen. Mahairik ere ez dago, ezta komunik ere, patioko 4 orduetan kartzeleroak behin baino ez digu atea zabaltzen komunera joateko.

Jatordu guztiak, gosaria, bazkaria eta afaria ziegan bertan egin behar ditugu, eta lehen eskura geneuzkan aktibitateak ere debekatu dizkigute: liburutegia, gimnasioa, eskulangintza... Erosi ditzakegun janari-edariak egunean zehar 2 aldiz ekartzen dizkigute, bazkal orduan eta afal orduan. Patiora goazela, batzuetan gainetik katxeatzen gaituzte, eta dutxarako gauzak eramaten ditugun poltsa goitik eta behera mihatzen dute. Ziegan izan dezakegun gauza kopurua mugatu digute: arropa, liburuak eta horrelako gauzak.

Kide guztiak 8 modulutan sakabanaturik gaudenez, lokutorioetako bisitak goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 5etan bukatzen dira. Modulu bakoitzak ordu ezberdinean komunikatzen du, gu elkarren artean ikus ez gaitezen, eta bide batez gure senitarteko eta lagunak ere zigortuz. "Vis a visetara" ere banan-banan eramaten gaituzte, gure isolamendua erabatekoa bihurtuz. Borroka hau irabazten ari garela esan behar dizuet, zuek hor kanpotik eta gu hemen barrutik. Guk irabazteko borrokatzen dugulako eta eurak galtzeko, hor dago aldea. Besterik gabe, indarrez eta maitasunez betetako besarkada batekin agurtzen zaituztet, batez ere espetxeetan zaudeten lagun guztiak. Animo, eutsi gogor eta jo ta ke... Euskal Presoak Euskal Herrira. Dispertsiorik ez.

*Mikel Askasibar Garitano*
*Euskal preso politikoa*
*Herrera de la Manchan*

## tira biraka: **bittor rodriguez**



**atrebentzia ezpada**

## Uda partiak irakurtzeko denbora gehixago eskaintzen dabela uste dozu? Ze irakurtzia gustatzen jatzu?



### Luis Gabiria

Urte osoan zehar irakurtzen dut. Udaran, neguan baino gehiago egiten dut lan eta, denbora aldetik, ez dit laguntzen. Historiako liburuak ditut gustoko.



### Elena Ruiz

Irakurtzeko, gantxilloa egiteko, euskaltegiko lanak egiteko... denbora gehiago izaten da. "El hombre que susurraba a los caballos" da amaitu berri dudan nobela.



### Pedro Tabares

Ez dut irakurtzeko ohiturarik, ezta denborarik ere. Denbora beste gauza batzuk egiteko aprobetxatzen dut. Egunkaria irakurtzen dut noizean behin.



### Begoña Izquierdo

Irakurtzea atsegin dut, baina udara iristean ez dut gehiago irakurtzen, urtean zehar bezalaxe aritzen naiz. Normalean nobelak irakurtzen ditut.



### Benita Ekiri

Ez daukat irakurtzeko ohiturarik. Egunkaria noizean behin. Nahiago dut kontzertuak ikustera joatea eta bestelako ekintzak egitea udara iristean.



### Kontxi Laskurain

Udan gehittuago irakurtzen da. Lan gutxiau edukitzen dot eta irakurtzeko aprobetxatzen dot. Psikologiakuak, entsaiuak... danetik gustatzen jat.

**bai, esan!**

*Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.*

### SAN MARTZIALEKO MAHAIEN BANAKETA

**Uzuri Alvarez**ek San Martzialgo mahaiak alokatzeko erabiltzen den modua salatu nahi du. Astelehenean, ekainak 21, 17:00etan hasi zen mahai-banaketa. 16:30etatik ilaran egon ondoren eta bere aurretik jende gutxi pasatu arren, heldu zenerako emanda zeuden burdinezko mahaiak (berak dioenez, 100 inguru), eta kaballetezkoak bakarrik geratzen ziren. Argi dago Uzuriren ustez, ilaran egon ez ziren askok aurretik hartuta zituztela mahaiak. Mahaiak Udalak banatzen dituenez, herritar orok eskubide berdinak dituztela uste du Uzurik. Hortaz, ilaran egon zirenei adarrik ez joteko eskatzen die Uzurik Udaleko langileei.

**ikuspuntua: jerardo elortza**

## *Nagusi ala morroi?*



Bukatu berri den Kosovoko gerraren inguruan hamaika gauza xelebre entzun eta irakurri behar izan dugu azken hilabeteotan. Gertatzen ari zena gatazka-lekutik zuzenean eta minutuoro eskaintzen zitzaigula sinestarazten saiatu dira politikoak, militarrak nahiz informazio-agentziak. Baina guregana heldu orduko, auskalo zenbat bahe eta iragazkietatik pasatu behar izaten zuen albisteak. Eta hartara, itxura batean etengabeko berriak jaso arren, gehienetan inpresio bera izaten genuen: egiaren laurdenaz ere ez ginela jabetzen.

Batzuetan, ordea, inolako lotsarik gabe nabarmenkeria galantak argitaratu dira. Adibidez, gerra amaitutzat jo zutenean, Madrileko egunkari "serio" batek, lehenengo orrialdean, ertz batetik besteraino letra handiz, ondorengo izenburu hau zekarren: "Solanak gerra geldiarazteko agindua eman du". Urteko txisterik onenetakoa, benetan negargarria ez balitz. Arazo guztian morroi besterik ez izan eta gero jauntxo moduan agertu gura.

NATOri ezezkoa eman behar zitzaiola esanaz hasi zen Javier Solana progrea, azkenera orduko, makina militar horren idazkari nagusi izateraititsi zitzaigun, hautatuen klubean sartzen zela pentsatuz agian. Baina ohoreak eta loreak igarota, morrontza latzean jardun behar izan du munduko indar faktikoek agintzen ziotena betearazten. Horregatik aipatutako albisteari hobeto letorkioke honako titular hau: "Gerra amaitu dute. A zer lasaitua hartu duen Solanak!".

Eta honek ez du esan nahi Milosevic-en alde gaudenik. Ezta hurrik eman ere.





# Omenaldi hunkigarria

**Pilar Lonarbide eta Don Lucio De la Presa** Osintxuko eskolako irakasle ohiek omenaldi hunkigarria jaso zuten domekan. Don Lucio eta Pilar senar-emazteekin ikasitako 70 lagun inguru bildu ziren Osintxun, eta guztiek eskolako kontuak gogoratzeko aukera izan zuten. Eguerdiko mezaren ostean, eskolara arteko igoera egin zen, bertan jarritako **argazki erakusketa** ikusteko. **Dantzariek ohorezko arkua** eskaini zieten omendutakoei eta, ondoren, **Aritzeta abesbatzaren emanaldia** izan zen plazan. Frontoian egindako herri bazkarian primerako giroa izan zen; 116 elkartu ziren eta bazkalostean Don Luciok eta Pilarrek hainbat opari jaso zituzten. Jaiari primerako bukaera emateko, **Arno** taldearekin dantzaldia izan zen arratsaldean.



# San Juan suak



Beste urte batzuetan baino **zumeta gutxiago** ikusi ahal izan ziren eguazten gauean, **San Juan bezperan**. Herri barruan gero eta toki gutxiago dagoenez, Poligonoko industrialdean, Osintxun, Basarten edo Ozaetan piztu ziren suak herenegun. Gaztetxoek ederto pasa zuten aurreko egunetan sumetak gertatzen eta baita pilatutako guztiak sua nola hartzen zuen ikusten. Aspaldiko ohiturari eutsiz, baserrietan ere ez ziren falta izan sumetak aurtengoan.



# Motozaleen irteera

**Zapelaitz motozale elkartekoak Soriako Laguna Negrara** joan ziren ekainaren 13an. 18 lagun elkartu ziren, tartean hiru arrasatear, 16 mototan. Egun guztia paraje eder haietan igaro eta argazkia atera ondoren, itzulerako bidea hartu zuten. Halere, goizean botoa eman ez zutenak, eman barik geratu ziren, ez baitziren herrira garaiz heldu. Hurrengoan izan behar.

# 1958an jaiotakoen lagunarteko afaria

**1958an jaiotako bergararrek lagunarteko afaria** izan zuten joan zen ekainaren 12an. Hauteskundeen atarian, erreflexio eguneko gaua mahaiaren inguruan igaro zuten 41 urteko emakumezko eta gizonezko bergararrek. 43 lagun elkartu ziren herriko jatetxe batean. Aurretik, argazkia atera zien Udal Pilotalekuan Juan Antonio Unzurrunzagak. Erretratua nahi dutenek Antxoni jatetxean eskuratu dezakete Juan Carlos Lazkanori eskatuta.







# Jubilatuen kirol jaia

IÑAKI UGARTEBURU

**Bailarako 400 lagun inguru** bildu ziren Elgetan jokatutako **Jubilatuen Olinpiadaren 8. edizioan**. Herriko zein inguruko jubilatuek ere sasoi betean direla erakutsi zuten, eta gogor eta kementsu aritu ziren antolatutako proba ezberdinetan: besteak beste, hockey partiduak, arku tiraketa, petanka eta bestelako jolasak izan ziren Elgetan; eta partaideek euren trebetasuna azaldu zuten, taldeen arteko kiroltasuna nagusi izan zelarik. Luntxaren ondoren dantzaldia izan zen. Hauek Sidneyko Olinpiadetara joateko gertu daude...

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

Agirrebeña
JATETXEA
Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

asteko menua: **sirimiri jatetxea**

# Euskal tarta



SOFIA NAVARIDAS eta IGNACIO LARRAÑAGA
*Sirimiri jatetxekoak*

**OSAGAIAK (8 lagunentzat)**

- 500 gramo azukre
- 500 gramo gurin
- 8 arrautza
- 50 gramo laranja ur
- 600 gramo irin
- 15 gramo royal
- Pastel krema

**PRESTAKETA**

- Arrautzak ondo irabiatu eta azukrea, gurina eta laranja ura gehitu.
- Guztia ondo nahastu.
- Masa loditu eta arrotzeko, irina eta royala gehituko dizkiegu beste osagaiei.
- Masa ondo luzatu, 5 milimetroko sendoerakoa lortu arte.
- Masarekin molde borobil bat forratu, ertzetetatik irtetzen lagata.
- Erdi erdian pastel krema gehitu, eta molde ertzetatik ateratzen zen masarekin tapatu.
- Goialdea txukun lagatzeko, lauburu bat egin.
- Brotxa bat erabiliz, arrautzarekin goialdea busti.
- Labean sartu, eta 180-200 gradutara 45 minutu edo ordubete eduki.

adituen esanetan

# EPO sustantzia

BITTOR RODRIGUEZ, *dietista eta elikagaien teknologoa*

Txirrindularitzan izandako polemikaren ondorioz, guztion ahotan izan da azken egunotan eritropoyetina delako sustantzia (EPO). Giltzurrunak sortzen duen hormona da eritropoyetina. Bere funtzio nagusia, oxigeno premia dagoen egoeretan, globulo gorrien sortzea bultzatzea da. Funtzio hori dela eta, hainbat kiroletan odoleko globulo gorrien kopurua handitzeko erabili izan da. Horrela, goprutzean oxigeno garraioa azkartu eta ondorioz kirol errendimendua hobetzeko aukera dago.

Kirol munduko doping kasuetan EPO sintetikoa erabili izan da eta odolean 5-13 ordu bitartean besterik egiten ez duenez, dopingaren kontrako kontroletan oso zaila izaten da antzematea. Globulo gorrien kopurua konprobatuta somatu daiteke sustantzia honen erabilpena. Dena den, kirol errendimendua hobetu arren, EPOak egoera poliglobulia sortzen du, hau da, odola sendoagoa da (zelula gehiago daramatzalako) eta kirolaren ondorioz ura galtzen denez, odola dentsoagoa bihurtzen da. Ondorioz, koaguloak sortzeko arrisku haundiagoa dago. Odolaren bolumen-dentsitate horren aldaketak ere tentsio arazoak edota hiperurizemia (gehiegizko azido urikoa) ekar ditzake atzetik. **B**

bergarako gordailutik

## IZURRITEAK ETA SAN ROKE

**Imanol Sorondo**

Izurritea sortu da 1599. urtean Bergarako inguruetan; gaisoen etxeak eta ospitalak garbitzen saiatu dira, kutsadurarik sortu ez dadin; gaisoek erabilitako arropak baztertu dituzte, eta herrietako kaleak garbitzen arreta berezia ipini dute. Hilobiratu berri dituzten elizetako sepulturetan binagrearekin nahastutako ura eta karea bota dituzte; beraien gainean ez dute orain ohizko zapirik ipintzen, eta askotan garbitzen dituzte hilobi horiek ura eta binagrearekin. Ostatuetan arreta handiz begiratzen dute, eta izurritea dagoen tokietako jendea ez hartzera ere heldu dira eta, nola ez, beraien linoak eta oihalak ez erostera.

Izurriteak beldurgarriak izan daitezke eta asko hiltzeko arrisku handia izaten da. Eskuartean dauden erremedioak askotan nahikoa ez eta San Rokeren mesedea eskatzen da. Oraingoan, 1765.eko urrian gaude; Benituatar Franzisko Xabier alkateak errogatibak eta prozesio handi bat egitea erabaki du izurritearen aurkako abokatua den San Rokeren irudiarekin baztanga eta beste gaitz batzuk daudelako eta hildako ugari sortu dituztelako. Askotan meza nagusiak eta mezen bederatziurrena ere ospatzen dituzte, kandela ederrak ipini ere bai San Rokeren aldare aurrean.

Antzinatik zen San Roke Bergarako patroia, eta 1758ko maiatzaren 29an udaletxeak Agirretar San Martin izendatu zuen Patroi-kide San Rokerekin batera. XVI. mendetik zeuden San Sebastian eta San Rokeren kofradiak Santa Marina eta San Pedroko elizetan; aldareak ere bazituzten horietan. Askok ikusi izan dugu nola eramaten zen San Rokeren irudia prozesioan San Pedroko elizatik alkatearen etxera, txistulariak aurretik zihoazela, abuztuko Amabirjnaren biharamunean, santuaren egunean. San Pedroko sakristiako bidean dago irudi hori. **B**

MINER
ardoak

- Termino de Ugarte,
- Viña Albina,
- Cordovín klaretea,
- Ameztoi txakolina
- eta abarren banatzailea.

**Eskaerak egiteko:**
**943 76 01 34**
**ETXERA**
**ERAMATEN DUGU.**




**Gaspar**
JATETXEA
**Paellak, oilaskoak,**
**tortillak, gisatuak...**
Barrenkalea 31. Tf. 943 76 20 02

**TOKI-ONA**
**Bodegoia-taberna**
Patata-tortillak, bakailao-tortillak, paellak,
bakailaoa pil-pilean eta bizkaitar erara
Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



ARDOAK
MH
MANSO HERMANOS • BERGARA

**Manso Hnos. S. A.**
Lambion, Viña Arnoa, Mundiala, Sonsierra,
Viña Mindiarte, Rueda Tempero
Amillaga 11. 123 posta kutxa, BERGARA.
Tf 943 76 14 48. Tf eta faxa 943 76 14 49
***Ondo pasau***
***San Martzialetan!***

**Larrañaga**
**BANATZAILEA**
Esnea, ura, sagardoa, Errioxako ardoa, garagardoa...
ETXERA ERAMATEN DUGU
Martoko 32, behea
**BERGARA**
Tf.: 943 76 45 94
Mobila: 907 65 76 34

ZUBI-BERRI
JATETXEA
*San Anton auzoa*

**Paella edo makarroiak**
**+**
**oilaskoa edo saiheskia**
**=**
**1.000 PTA**
**KOTXEAN ERAMANGO**
**DUGU BERTARAINO!**
*Deitu* **943 76 30 24***ra!*

**ETXAGI**
**JATETXEA**

PATATA
TORTILAK
•
OILASKOAK

BERTARA ERAMATEN DUGU!
**Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12**

| | |
|---|---|
| Oilasko osoa | 975 |
| Patata frijituak | 300 |
| Entsalada | 400 |
| Oilaskoa+patatak+entsalada | 1.500 |

**Kotxean goraino igoko dugu!**

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19

# EGIZU GARAIZ
# ZURE ESKAERA!

# Bergarako
# OSASUN GIDA

■ ALBAITARIAK: **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ ANALISI KLINIKOAK: **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ BARNE MEDIKUNTZA: **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ DENTISTAK: **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 ■ ERREHABILITAZIO FISIKOA: **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ FISIOTERAPEUTAK: **ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ GINEKOLOGOA: **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ MASAILARIAK: **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA: **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ MEDIKUNTZA OROKORRA: **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ PODOLOGOAK: **ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ PSIKIATRA: **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ PSIKOLOGOAK: **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias Maketazioa: Iñaki Iturbe Publizitatea: Uxue Zabaleta Erredakzio kontseilua: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga Testuen zuzenketak: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu Telefonoa eta faxa: 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 40 zenbakia. 1999ko ekainaren 25a.*

# EH nagusi udal hauteskundeetan

## 112 boto atera zizkion EHk orain arte alkatetza izan duen EAJ alderdiari

**Joan zen ekainaren 13ko hauteskundeetan Euskal Herritarrok izan zen Antzuolan alderdirik bozkatuena. Europarako, Aldundirako eta Udalerako hauteskudeetan botu gehien lortu zuen alderdia izan zen. Hiruretan 500 bototik gora lortu zituen.**





*Ilarak ere egin ziren bozketa egunean.*

Ehun eta hamabi botoren aldea atera zion Euskal Herritarrok alderdiak joan zen ekainaren 13ko udal hauteskundeetan, bigarren alderdi bozkatuenari, EAJri. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako bi alderdi hauen arteko aldea 61 botokoa izan zen eta Europako parlamenturako, berriz, 43 botokoa. Hauetxek dira ekainaren 13ko hauteskundeetan bi alderdi nagusienek lortutako emaitzak.

Dena dela, balorazioak egiteko orduan kontuan izan behar da EAJ eta EA bakoitza bere aldetik aurkeztu zirela udal hauteskundeetara. Bi alderdiek lortutako botoak batuz gero, alkatetza lortuko zuten. Izan ere, bien artean 613 boto jaso zituzten.

**BESTE EMAITZA BATZUK**

Orain arte herrian nagusi diren alderdiei buruz baino ez gara aritu, baina alderdi sozialista ere aipatu beharra daukagu. Izan ere, PSE-EE alderdiak gora egin du azkenengo udal hauteskundeetatik. Orduan baino 44 boto gehiago lortu ditu. EAk ere gora egin du aurreko udal hauteskundeetatik. 40 boto gehiago lortu ditu.

AUNk (Alianza por la Unidad Nacional), Inestrillasen alderdiak, boto bat lortu zuen Europako parlamenturako. ■

## MIREIA UNAMUNO

*Emakumezko lehenengo alkatea Antzuolan*



**Zer sentitu zenuen EHk irabazi zuela jakitean?**

Gustura geunden; batzuk arratsaldetik hasi ziren ospakizunekin. Gainera, EHk irabazten dituen lehenengo hauteskundeak dira.

**Emakumezko lehenengo alkatea izango zara. Zer datorkizu burura?**

Bazen garaia. Hautagaien ehuneko handiena gizonezkoak dira, badirudi politika gizonena bakarrik dela.

**EAJ eta EAren botoak batuta EHrenak baino gehiago dira. Batera joan balira, irabazi egingo zuten?**

Ez zuten irabaziko. Bi gehi bi ez dira beti lau izaten. Horrelako itunekin botoak desbideratu egiten dira eta horixe gertatu da. Garbi erakutsi dute hauteskunde hauetan.

**Uztailaren 3an izango da alkatea hautatzeko batzarra. Zer gertatuko dela uste duzu?**

Alderdien arteko ituna betetzen baldin bada, eta erraz beteko da nire ustez, EHk lortuko du alkatetza. Ziur nago errespetatuko dela.

## Kalebarrengo eta Lizarragako jaiak ospatzen

# San Pedroak eta San Martzialak

**San Pedroak ospatuko dira Kalebarrenen ekainaren 26 eta 27an. Hurrengo asteburuan, berriz, uztailaren 3 eta 4an, San Martzialak.**



Lehengo San Pedro eta San Martzialak nola ospatzen ziren jakin nahian, bitxikeria batzuk jaso dizkiogu kalebarrengo eta Lizarraga auzoko bikote bati. San Juanak pasatuta, San Pedro eta San Martzial zetozen, eta bietan ere ez zen ospakizunik falta gure artean. “Hiruretan be etxez etxe ibiltzen ziran txanbolintxeruak auzuan, San Juanetan Uzarran, San Pedrotan Kalebarrenen eta San Martzialetan Lizarran. Piezaren bat jo ondoren kafia hartzera gonbidatzen ziran etxera. Ondoren eskupekoren bat be emoten jakuen. “Atsaldian, berriz, danetan be erromerixia: filarmonikia eta panderua edo jazbana eta filarmonikia edo filarmonikia bera bakarrik be bai”.

Eta erromeriak gauerdirako bukatzen baziren ere, ba omen ziren orduan ere gaueko bestelako ibilerak. “Akorduan daukat San Pedro bezperako erromerixia akabau, Lizarrako mutillak juntau, Larrebarrenetik goratxuago arbolia bota, eta zelaiz zelai lepuan jaso ondoren zela sartzen giñuan gabian bertan San Martzialen” .

Garai batean nahiko zabalduta egon zen beste ohitura bat ere bazen San Pedrotan “gabian, gaztiak lorak harrapatzen zittuen balkoi eta bentanetatik, eta hemenguak hara eta hanguak hona. Hurrengo goizian hor ibiltzen giñan zoruen pare norbere lorak topau ezinda. Urte baten San Pedro goizeko mezetara juan eta elizako entradia dana tiestoz beteta topau giñuan, balkoietatik harrapau eta eskillara haura ondo asko adornauta. Meziaren ondoren bakoitzak beriak hartu eta etxera”.

Lehen ere gazteak gazte, dirudienez. Hortaz, aurten ere garai horretan gaudenez, eutsi umoreari, ondo ondo pasa eta *Kontuz etxeko lorontziekin*

### SAN PEDROAK KALEBARRENEN

Ekainaren 28an, eguakitzean izango da San Pedro eguna eta horixe da Kalebarrengo jaien atarikoa.

Eguakitzean bertan hasiko dira txeflero jaurtiketarekin. Hori 19:30etan izango da eta ondoren, buruhandiak eta txistularien kalejira egingo da giroa alaitzeko. Gau partean, 22:30etatik aurrera Gezalaga anai-arrebak alaitutako berbenari ekingo zaio. Baina dudarik gabe zapatua eta domeka izango dira egunik handienak. Kalebarrengo jai batzordekideek bete-betea datorren egitaraua prestatu dute aurtengo San Pedrotarako. Zapatuan 10:00etan hasiko da marrazki lehiaketa eta 12:00etan, ginkana egingo da Zurrategin eta 13:00etan marrazki lehiaketako sari banaketa. 18:30etan buruhandiak aterako dira Ondarreko dultzaineroekin eta 20:00etan igoko da arbola. 22:30etan *Hator* taldearekin erromeria eta 24:00etan urtero bezala, sagar dantza.

Domekan, txistularien kalejirak emango dio hasiera egunari eta 11:30etan meza, salda eta txorizoa. Eguerdian, 12:30etan, dantzariak eta trikitilari gazteen kalejira eta 16:30etan mus txapelketa. Sari bikainak daudela jakin dugunez, izena ematera animatu nahi dituzte antolatzaileek antzuolar guztiak. Amaitzeko, 18:30etan, gaztetxoenendako Txoronpio, Pantxi eta Pantxo pailazoen saioa.



*Arbolia igoko da Kalebarrenen zapatuan.*

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Arin
JATETXEA
Euskal sukaldaritza
Eguneko menua
Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89



*Berbenan Gezalaga anai-arrebak eta Joxe Gardoki arituko dira.*

**HURRENGOAK, SAN MARTZIALAK**

Ekainaren 30ean, San Martzial egunean, San Martzial auzoko bizilagunek jai eguna izango dute. Arratsaldeko 18:00etan txefleroak jaurtiko dituzte eta 19:00etan meza egongo da ermitan. Ondoren, ohitura legez, ardoa eta gazta banatuko da bertara gerturatzen diren guztientzat. Giroa alaitzen, berriz, herriko trikitilariak arituko dira, afaltzeko ordua iritsi arte, gaueko 21:00etan.

Zapatuan, 11:00etan plater jaurtiketa frogak egingo dira, 16:30etan jokatuko da eta herri mailako plater jaurtiketa txapelketa. 21:00etan auzo afaria egingo da eta 21:00etan Gezalaga anai-arrebekin berbena. Gau erdian zaku karrera jokatuko da trofeo eta guzti.

Domekan, bestalde, txistulariak arituko dira San Martzialen eta meza 11:00etan izango da ermitan.

Ondoren, salda banatuko da eta luntxa eskainiko zaie jubilatuei. Ordu erdi beranduago, 11:30etan, herriko txirrindulari igoera izango da, txirrindulari gaztetxoenentzat. Sari banaketaren ostean, 12:00etan, Oinarin dantza taldeak dantza saioa eskainiko du eta 12:30etan Joxe Gardokirekin erromeriari ekingo zaio. Arratsaldean ere beste saio bat eskainiko du, 17:00etan, hain zuzen ere, eta 18:00etan herri kirolak izango dira.

Jaiei amaiera emateko, gaueko 21:00etan txeflero jaurtiketa egingo da San Martzialen. ■

■ ■ ■

*Kalebarreneko zozketa mundiala domekan egingo da pailazoen saioan*

■ ■ ■

## ESKERRIK ASKO DENOI

Kaixo lagun horri:

Guregan konfidantza jarri duzuen eta botoa eman diguzuen herritar guztiak eskertu eta zoriondu nahi ditugu.

Guretzat oso baliotsua da zuen boto bakoitza eta errespeto osoz zaindu eta erabiliko dugula adierazi nahi dizuegu.

Arazo guztiak dira garrantzi handikoak jasaten ari diren herritarrentzat eta horregatik, kezka, eskaera eta proposamen guztiak gogoz entzungo ditugula eta zintzo erantzuten ahaleginduko garela azpimarratu nahi dugu.

Udaletxe barruan beste zinegotziekin batera elkarlanean aritzeko baldintza egokiak ezartzea dugu helburutzat eta, baita ere, edozein herritarri bere partaidetza ziurtatzeko bideak irekitzea.

Udal arduratsu eta eraginkor bat egin nahi dugu Antzuolarako. Horretarako, ez da nahikoa gehiengoa edukitzearekin, zure babesa eta kolaborazioa behar ditugu. Ahal duzun neurrian eta moduan emango diguzulakoan gaude. Eskerrik beroenak eta laister arte.

***Antzuolako Euskal Herritarrok***

# MOTZIAN

## PEGATINA LEHIAKETA

Idolazek pegatina lehiaketa antolatu du. Antzuolako jaietan banatzen diren pegatinetarako leloa asmatzean datza lehiaketa. Leloak euskara bultzatzeko balio izan beharko du, eta lanak udaletxean aurkeztu beharko dira ekainaren 28a baino lehen. Esaldia marrazki batekin lagunduta joan daiteke eta nahi den formatoan aurkeztu ahal izango da.

## LANGABETU ZERRENDA

Udaletxean dagoen langabetu zerrenda berrizteko izen emate orriak banatu dira etxeetan. Interesatuek uztailaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dute udaletxean.

LEKU-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

GOROSTI Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

# Carlos Baleztena Ironman proban

## Nurembergeko triatloian parte hartuko du datorren domekan

**Domekan, ekainak 27, Nurembergera joango da Alemaniako Ironman triatloian parte hartzera. Laugarren aldiz joango da Ironman probara. Beraz, badaki nora doan. Dena dela, antzuolar honek egin behar duena jakin dezazuen, berarekin berbetan izan gara.**



Lehenengoa orain dela sei urte izan zen, Holandan. Orduan urtebete egin zuen entrenatzen. Izan ere, Ironmana ez da edozelako proba. Triatloia da, hau da, hiru proba ditu: 3.800 m igeri egiten, 180 km bizikletan eta 42 km-ko maratoia. "Dana segiduta" esan zigun Carlosek. "Janarixa aldian eruaten dozu. Bizikletan goiatzela 30 km-tik 30 km-ra dare anoak edo abitualamentuak eta korrika, berriz, 5 km-tik 5 km-ra". 1995ean Danimarkan egon zen. Bigarren Ironmana izan zen. Orduan 10 ordu eta 2 minutuko denbora egin zuen. "Aurten be hamar ordura gerturatu nahi dot, baiña Danimarkara jun nitzanian askoz be hobeto nenguan preparauta". Kanarietan izan zen bere hirugarren triatloia. Orduan arazoak izan zituen Carlosek. Maratoia amaitzeko 20 km falta zitziazkiola erretiratu egin behar izan zuen hanketako minagatik. Uretatik atera eta hondartzako harea ondo garbitu ez zuelako, antxitxiketan hasi zenean min egin zion hareak. "Holako prueba baten asko zaindu bihar die holako gauzak. Edozein tontokerixagatik dana jun leike pikutara". Hori orain dela hiru urte izan zen. Orain, ordea, ez zaio berriz horrelakorik gertatuko eta "gutxienez proba amaittu nahi dot. Hasieran Hawaiko Ironmanerako klasifikatu nahi neban, baiña eztot uste lortuko dotenik. 3.000 bat lagun ibilliko gara eta 30 bat lagunek lortuko dabe txartela urrian Hawaira juteko. Nekeza ikusten dot nik pe hori lortzia, baiña saiatu biharko".

Carlos bost lagunekin joan da. Eibarko hiru lagun, zarauztar bat eta ondarrutar bat. "Karrera motzetatik ezagutzen dogu alkar. Aurten autokarabana bat alokatzia pentsatu dogu, astebeterako jungo gara eta. Azkenian holakuak opor batzuk bezelakuak die eta". Fisikoki oso ondo egotea eskatzen du honelako erronka batek, baina baita psikikoki ere. Sofrimendua izugarria izan daiteke, baina Carlosek atsegin du korrika egitea. 34 urte ditu eta kirola maite du. Dena dela, berak aitortu digunez, ez da bakarra triatloian, "Euskal Herrian hogei bat lagun izango gara holako probetan ibiltzen ganak".



KIEKIE ALKMAAR

*Carlos 1996an Kanarietako Ironmanean.*

■ ■ ■

*"Ironmana, triatloia da: 3.800 m. igeri, 180 km. bizikletan eta 42 km.-ko maratoia"*

■ ■ ■

Txapelketa honen gastu guztiei berak egingo die aurre. Baina horrez gain egunero hiru ordutik lau ordura entrenatu behar izan du eta asteburuetan, berriz, sei orduko entrenamenduak egin ditu. "Eguardittan eta atsaldetan astian eta asteburutan goizian hasi eta dana segido; baiña lagunak egitten dittuzu, astebeterako juten zara... Ezta hain txarra. Sufridu bai, baiña gustatu ezkero! ■

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA ☎ 943 76 60 39
BERGARA ☎ 943 76 19 98

AITZ-GARBI
taberna jatetxea
Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

# IPINTZA institutua

1999/2000

**BATXILERGO MODALITATEAK**
TEKNOLOGIKOA
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

**GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOA** BERRIA
INFORMATIKAKO SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

**Matrikula epea**
uztailaren 1etik 9ra bitartean,
9:00etatik 13:30era.

Ipintza institutua: Boni Laskurain 19.
Tf: 943 76 31 42 / 43



# Txandakako enpresa injinerutza

**Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua.**
**Lan kontratua lehen egunetik.**

*Bilera informatiboa*

- Datorren uztailaren 2an, ostirala, bilera informatiboa izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 18:30etan Makina Erramintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

**1999/2000 ikasturtea**

- Makina Erremintaren Institutua
  San Roke auzoa 1 20870 Elgoibar
- Tf. 943 74 41 32 Faxa: 943 74 41 53
  E-mail: ingenieria@fmh.es
- Ordutegia: 8:00etatik 13:00etara eta 14:30etatik 17:30etara

**Matrikula epea ZABALIK**

MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA

cesi aquitaine poitou-charentes

# GEROZ ETA GERTUAGO




Hemendik aurrera gure bulego berrian aseguru talde handi baten babesa izango duzu.
Ocason, zure gai partikularra erabakitzeko talde profesional baten aholkua jasoko duzu.

Geroz eta seguruago sentitzeko, zatoz guregana eta gure produktuei buruzko informazio osoa emango dizugu:

**ETXEBIZITZA, BIZITZA, ZAHARTZAROA, HERIOTZA, ASEGURUAK...**

Zatoz gure bulegora eta opari bat izango duzu.

## BERGARAN

Fraiskozuri kalea 4-B
Tf. 943 76 73 29

OCASO

GEROZ ETA SEGURUAGO

# Irakurtzeko sasoia

## Biblioporrak programa martxan Udal Liburutegiaren eskutik

**Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Oñati eta Bergarako udal liburutegiek, elkarlanean, "Biblioporrak" gida kaleratu dute. Batez ere haurren artean irakurketa indartzeko asmoz, "Biblioporrak" programa orain dela bost urte jarri zuten martxan udal liburutegiek eta Eusko Jaurlaritzak. Programak erantzun ona jaso zuen hasieratik irakurleen artean eta aurten ere "Biblioporrak" gidaren edizio berri bat heldu zaigu.**

Kaleratutako eskuorrian argitaletxeetako nobedadeen aukeraketa bat jasotzen da, 60 bat titulu guztira, tartean eleberriak, historiako liburuak, ipuinak edo jolaserako liburuak. Irakurketarekin gozatzeko aproposak guztiak. Urtean zehar argitaratutako liburu dezente irakurri ondoren, aukeraketa bat egiten dute udal liburutegietako arduradunek, haur eta nagusiek euskarazko eta gaztelerazko liburu interesgarrienen zerrenda eskura izan dezaten. Gomendatutako liburuak adinaren arabera sailkatzen dira eta horrela haur, gazte eta nagusiek badute udako irakurketak non aukeratu.

Ikasturtea bukatuta eta oporren atarian, ikasleek zein helduek irakurtzeko denbora gehiago izaten dute sasoi honetan. Urtean zehar irakurtzeko astirik izan ez dugun liburu horri behingoz heltzeko ordua izaten da, eta argitaletxeek ere ahalegin berezia egiten dute hilabeteotan irakurle berriak erakarri nahian. Hondartzan eta igerilekuetan eskuartean libururen bat irakurtzea gustoko dutenak gero eta gehiago dira. Udako beroak badirudi irakurzaletasuna pizten duela eta Udal Liburutegian ere somatzen da liburu eskaerek gora egiten dutela.



Uda partean irakurle asko hurbiltzen da Udal Liburutegira. ARTXIBOA

**¡A mi que me importa!**
C. Blanco.
*Bruño.* 169 orr.



**Maori txikia**
Patricia Geis.
*Ttarttalo.*




**Gay nauzu**
I. Lamarca.
*Alberdania.*
92 orr.




**La otra historia de los Estados Uniidos**
H. Zinn.
*Hiru.*
599 orr.




### LIBURUAK ADIN GUZTIENTZAT

Esan bezala, "Biblioporrak" programak oso harrera ona izan du duela bost urte martxan jarri zenetik. Mila Agirrezabal Udal Liburutegiko arduradunaren hitzetan, "batez ere 8 eta 12 urte bitarteko

**Un mes con Montalbano**
A. Camileri.
*Emece.*
397 orr.




**Bambulo**
B. Atxaga.
*Erein.*
119 orr.




**Agirre zaharraren kartzelaldi berria**
K. Izagirre.
*Elkarlanean.*
282 orr.



**Manolito on the road**
E. Lindo.
*Alfaguara.*
147 orr.




## Aukera zabala

**0 URTETIK AURRERA**

- **Maxibaño**. G. Solotareff. *Corimbo*
- **El cuento del señor pato**. J. Sanchez. *Anaya*
- **Me voy de viaje**. A. Mets. *Corimbo*
- **Historias de Clara**. G. Hansson. *Planeta*
- **Jiran biran**. P. Añorga. *Aizkorri (umeei irakurtzeko)*
- **"Sagutxo" bilduma**. S. Lavis. *Ttarttalo*
- **"Tira egiteko mihidun liburuak" bilduma**. J. Lodge. *Ttarttalo*
- **No confundas**. H. Tullet. *Destino*

**6 URTETIK AURRERA**

- **"Munduko neskak eta mutilak" bilduma**. P. Geis. *Ttarttalo*
- **Txano Gorritxo berdea, horia, urdina eta txuria**. B. Munari. *Anaya-Haritza*
- **Mila eskolara doa**. T. Duran. *Elkarlanean*
- **Zigor eta postetxeko lehoia**. V. Muñoz. *Anaya-Haritza*
- **¿Que pasa ahi arriba?** E. Stiemert. *Kokinos*
- **Edu, el pequeño lobo**. G. Solotareff. *Corimbo*
- **Flon-Flon y Musina**. Elzbieta. *SM*

**8 URTETIK AURRERA**

- **Fred y la caja de libros**. O. Könnecke. *SM*
- **Rufus y las piedras magicas**. M. Pfister. *Montena*
- **Ahate pobreen urmaela**. F. Casalderrey. *Edebe-Giltza*
- **Jontxuren fragata**. A. Balzola. *Aizkorri*
- **¡A mi que me importa!** C. Blanco. *Bruño*
- **Elur beltza**. P. Zubizarreta. *Erein*
- **Sorginen urrezko maindirea**. Arratibel. *Erein*

**10 URTETIK AURRERA**

- **Espazioko istoria sekretuak**. J.M. Gisbert. *Edebe-Giltza*
- **El palacio de papel**. J. Zafra. *Anaya*
- **El señor de los bonsais**. M. Vazquez Montalban. *Alfaguara*
- **Harry Potter y la piedra filosofal**. J.K. Rowling. *Emece*
- **Rus doktorea**. G. Sanchez Garcia. *Edebe-Giltza*
- **Azken gorra**. R. Santiago. *Edebe-Giltza*
- **Ba omen zen errege bat**. J. Manila. *Elkar*

**GAZTEAK**

- **Manolito on te road**. E. Lindo. *Alfaguara*
- **El Rey Arturo cabalga de nuevo mas o menos**. M.A. Moleon Viana. *SM*
- **Historia de dos ciudades**. C. Dickens. *Alba*
- **Dias de Reyes Magos**. E. Pascual. *Anaya*
- **Nahiago nuke mutila banintz**. D. Duran. *Erein*
- **Bambulo**. B. Atxaga. *Erein*
- **Kamoren ihesaldia**. D. Pennac. *Elkar*
- **Atlas sentimentala**. P. Zubizarreta. *Alberdania*
- **Triangelu hautsia**. T. Garcia Viana. *Alberdania*
- **La chica del pañuelo rojo**. J. Jiang. *Ediciones B*

**HELDUAK**

- **Agirre zaharraren kartzelaldi berria**. K. Izagirre. *Elkarlanean*
- **Gay nauzu**. I. Lamarca. *Alberdania*
- **Zanpa ezak sugea**. Y. Kemal. *Txalaparta*
- **Krabelina beltza**. J.M. Elexpuru. *Txalaparta*
- **Berandu da gelditzeko**. U. Iturriaga. *Susa*
- **Urregilearen ordua**. P. Aristi. *Erein*
- **Noiz luzatu pausoa**. A. Egaña. *Alberdania*
- **Resureccion**. L. Tolstoi. *Pre-Textos*
- **Poesia**. J.A. Goytisolo. *Catedra*
- **Amanecer con hormigas en la boca**. M. Barroso. *Debate*
- **Alias Grace**. M. Atwood. *Ediciones B*
- **Las hijas de Hannah**. M. Fredrickson. *Emece.*
- **Un mes con Montalbano**. A. Camileri. *Emece.*
- **El diente de la ballena: Tres viajes nomadas...** T. Rodriguez. *El País-Aguilar*
- **La otra historia de los Estados Unidos**. H. Zinn. *Hiru*
- **El maestro de hielo**. J. Houston. *Martinez Roca*

haurrak etorri izan dira orain arte. Gaztetxoek irakurketarako gero eta zaletasun haundiago daukate eta helduek ere denbora libre gehiago dutenez, aisialdian irakurketari tartetxo luzeagoa eskaintzen diotela ematen du. Herritar asko dira liburutegira hurbiltzen direnak". Milarekin batera, Izaskun Egileta eta Ainhoa Larrañaga ari dira lanean Udal Liburutegian. Izaskunen iritziz, "urtean zehar liburu eske etortzen den jende fijoa dagoen moduan, badira uda aldean nagusiki irakurtzen dutenak ere. Suposatzen da udan denbora gehiago duela jendeak irakurtzeko eta ikasleak ere, eskolako liburuak ahaztu eta bestelako irakurketen bila etortzen dira. Jendea lasaiago ibiltzen da eta irakurtzeko egun aproposak dira hauek. 5-6 urtera arteko haurrak gurasoekin etortzen dira liburu eske eta hortik gorakoak bakarrik, ohitura handiagoa daukate liburutegira etortzeko. Gazteek batzuetan argi izaten dute zer irakurri nahi duten eta beste batzuetan guk gomendatzen diegu libururen bat. Nagusiekin beste horrenbeste gertatzen da. Eta Biblioporrak gida horretarako oso ondo dator".

**11.000 BOLUMEN LIBURUTEGIAN**

Bergarako Udal Liburutegiak 1.500 bazkide inguru ditu gaur egun, gehienak 23 urtera bitarteko gazteak. Guztira, 11.000 bolumen gordetzen dira Udal Liburutegian eta bertako arduradunek espazio falta somatzen dute jadanik.

**Liburuak adinaren arabera sailkatzen dira, horrela, haur, gazte eta nagusiek badute udako irakurketak non aukeratu**

Eskaintza gero eta haundiagoa da eta liburutegian gero eta gehiago irakurtzen omen da. Liburuez gain, egunkariak, aldizkari espezializatuak, bidai-gidak, euskarazko bideo dokumentalak edo euskal musikako CD bilduma aurki daitezke bertan. Era berean, liburutegiko bazkideek Internet sarean ibiltzeko aukera daukate.

Liburu maileguei dagokienez, liburuak 15 egunerako lagatzen zaizkio irakurleari eta epe hori bukatutakoan luzapen bat eskatzeko aukera dauka. 14 urte bitarteko gaztetxoen kasuan, gehienez hiru liburu eraman ditzakete etxera eta nagusiek, aldiz, bi liburu aldi bakoitzeko. Iaz 8.000 mailegu inguru egin ziren. Udal Liburutegiak, urtero bezala, ordutegia aldatuko du uztailean: uztailaren 5etik aurrera goizez bakarrik izango da zabalik, 8etatik ordubatera. Larunbat goizetan itxita izango da uztailean eta abuztuan. Era berean, abuztuaren 9tik 20ra bitartean itxita egongo da eta irailaren 1etik aurrera ohizko ordutegia berreskuratuko du liburutegiak, 10:00etatik 21:00ak arte zabalik izango delarik. B

# Irakurleak mintzo...



**URKO SANCHEZ**

"Euskarazko eta gaztelerazko liburuak irakurtzen ditut. Orain, udan, Udal Liburutegiko bazkide egin naiz, eta orain arte ikastetxeko liburutegian hartu izan ditut liburuak. Irakurtzea piloa gustatzen zait. "Txano Gorritxo berdea, horia, urdina eta txoria" liburua hartu nahi nuen, baina lagata zegoen eta "Erosketak egiten" izenburukoa hartu dut. Normalean argi izaten dut zer irakurri. Irakurtzeaz aparte, pilotan eta futbolean jolastea gustatzen zait".



**IOSUNE ALBERDI**

"Urte guztian etortzen naiz Udal Liburutegira eta beharbada uda partean gehixeago irakurtzen dut, denbora libre gehiago izaten dudalako. Jon Arretxeren "Ostegunak" eleberria eta Iñigo Lamarcaren "Gay nauzu" aukeratu ditut aste honetan. Arretxeren beste batzuk irakurrita dauzkat eta hauxe irakurtzeko gogoa neukan lehendik. Lamarcarena Biblioporrak-eko zerrendan zegoela ikusi dut eta motza eta irakurtzeko errez samarra denez, hartu egin dut".

EGA
ikastaroa

**Uztailaren 1etik 16ra eta irailaren 6tik 24ra. *Guztira 100 ordu***
09:00etatik 13:30etara

**Matrikulatzeko epea**
Ekainaren 28tik 30era

**Bulegoko ordutegia**
Goizez: 08:30-12:30. Arratsaldez: 13:30-17:30

UDAL EUSKALTEGIA

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**
Zabalotegi 13
Telefonoa eta faxa: 943 76 44 53
e-mail: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

# saren ZIBERLEKUA

**Internet eta informatikako**

Bergarako

**gune berria**





## zerbitzuak

- **Internet**
- Hainbat aplikazio erabiltzeko aukera: **Word, Photoshop, Excel, Access...**
- Internet eta aplikazioei buruzko **ikastaroak**

## erabilera tarifak

| | |
|---|---|
| **Ordubete Interneten** | **650** |
| Ordubete aplikazio batean | 500 |
| **Interneterako 10 orduko bonua** | **6.000** |
| Aplikazioetarako 10 orduko bonua | 4.500 |
| **Interneterako 20 orduko bazkide-bonua** | **10.000** |
| Aplikazioetarako 20 orduko bazkide-bonua | 7.000 |

* Bazkide-bonuek 20 orduko erabilera ziurtatzen dute; eta, gainera, beste 10 orduko erabilera, libre dauden ekipoen arabera.




Telefonotik deitzen duten lehenengo 10 lagunei,
**5 ordu Interneten DOAN!**

Masterreka 13, behea. BERGARA

Telefonoa: 943 76 91 08

## Xabier Lijo, maratoi antxintxikalaria

# "Urte erdi inguru eman dut Anetoko maratoia gertatzen"

**Xabier Lijo izan zen bergarar bakarra domekan jokatu zen Anetoko X-trom maratoian. 700 antxintxikalari inguru bildu ziren Benasqueko irteeran goizeko zortzietan, hauen artean, hiru antzuolar. Xabier Lijo bergararra 300. postuan sartu zen helmugara, 42 kilometro egin ondoren eta 6 orduko denborarekin. Irabazlea Quico Soler kataluniarra izan zen 3 ordu eta 46 minutuko denborarekin. Aneto mendiaren gailurra 3.404 metrotara aurkitzen da.**


Lijok dioenez, horrelako maratoiek prestaketa berezia eskatzen dute.

**G.** Lehen aldia izan da?

**E.** Bai. Lasterketa gogorra da, baina betidanik kuriositatea izan dut, eta aurten animatu egin naiz. Maratoi arruntetan denbora ona egitera joaten da normalean. Kasu honetan ezberdina izan da, arriskutsuagoa ere bada eta. Lehen aldia izan dela ere kontutan hartu behar da. Hurrengoan animatuz gero, denbora hobetzera joango naiz, noski.

**G.** Ibilbidea nolakoa zen?

**E.** 21 kilometro aldapaz gora eta 21 aldapaz behera egin genituen. Igoerari dagokionez, zati batzuk oinez egin behar izan genituen, ezinezkoa zelako guztia korrika egitea. Lasterketa hasieran, 13 kilometro jarraian korrika egiteko aukera ematen duen bidea dago, baina bidea amaitzearekin batera, aldapa gogorrak eta handiak daude. 700 korrikalari elkartu ginen eta zati estuetan denbora behar izaten zen bidean zehar abiatzeko; eta horrek denbora asko galtzea dakar. Jaitsiera, berriz, gogorragoa da. Guztia korrika egin nuen, baina aldapaz behera joatean gorputzak asko sufritzen du eta kontuz ibili beharra dago. Aldapan gora joatea baino arriskutsuagoa da.

**G.** Zelako entrenamendua burutu duzu?

**E.** Bereziki, 10 astetan zehar jardun naiz maratoia gertatzen. Astean bost aldiz egiten nuen korrika. Astean zehar lau ordu eta erdi egunean, gutxi gora behera, eta asteburuan piskat gehixeago. Bestalde, giharrei dagokienez, urtarrilean hasi nintzen.

**G.** Jendea oso prestatuta joan zen?

**E.** Denetarik zegoen. Hasierako taldean zeudenei berehala antzematen zitzaien prestaketa berezia zutela. Ni neu lasai irten nintzen. Quico Soler lasterketako txapeldunak eraman zuen abiadura ikustea, esaterako, ikusgarria zen. Egindako denborari bakarrik begiratuta ere imaginatu dezakezu.

**G.** Eskubaloian, mendian eta korrika zabiltzala kontuan hartuz, zein aukeratuko zenuke?

**E.** Mendia. Korrika egiten asko sufritzen da eta eskubaloiari dagokionez, entrenatzaile lanetan dihardut. Ez dut jokatzen. ■

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

GRUPO ZURICH
ASEGURUAK
GABILONDO
AGENTZIA INMOBILIARIOA
Gurutzne Elkoro Gabilondo
Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85

PISZINETAKO TABERNA
Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak
Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

# Herrien arteko pilota finalerdietan zorterik ez

**Joan zen** eguakitzean jokatu ziren Herrien arteko txapelketako finalerdiak Azkoitian. Bergarako senior, jubenil eta kadete mailakoek ez zuten zorterik izan, azkoitiarrek hiru mailetan garaipena lortu baizuten. Itzulerako partiduak bihar, zapatua, jokatuko dira Udal pilotalekuan 19:30etatik aurrera. Bergararrentzat ia ezinezkoa da sailkatzea, azkoitiarrek hiru partidu irabazi eta 60 tantu alde baidituzte. Reyes Azkoitia entrenatzaileak adierazi digunez "alde handia hartu digute. Sailkatzea ia ezinezkoa da joanekoan hiru partiduak galdu ondoren. Kadeteei dagokienez, partiduan ez zen alde handirik izan. Gogorra eta, era berean, polita izan zen. Pilotak ondo eutsi genituen baina tantuak azkoitiarren alde izan ziren".

Finalerako sailkatzen ez badira ere, hirugarren postua eskuratzeko aukera badute oraindik bergararrek. Beste finalerdian galtzaile irtetzen denaren kontra neurtu beharko dira Bergarakoak bihar Azkoitiaren kontra irabazten ez badute.



Bergararrek hirugarren postua eskuratzeko aukera dute oraindik.

## Olabarria Arrasateko goitibeheretan



Andoni Olabarria eta J.A. Flores irten aurretik.

**Andoni Olabarria** eta Carlos Gutierrez dira goitibehera lasterketetan ibiltzen diren bergararrak. Joan zen domekan Arrasaten antolatu zen lasterketan, Andonik, Juan Antonio Flores hernaniarrarekin hartu zuen parte. Guztira 19 goitibehera elkartu ziren, baina bergararrak ez zuen lehendazikoen artean sailkatzerik izan. "Ondo ibili ginen, baina gainontzekoek abiadura handiagoa hartu zuten. Erabili genuen goitibehera ez zen gurea izan. Datorren domekan Lasarten beste lasterketa bat dago. Ea oraingoan Carlos eta biok joaten garen".

## Gimnasia erritmikoko erakustaldia

**Ariznoa** Gimnasia Erritmiko taldeko neska gaztetxoek ikasturte amaierako gimnasia erakustaldia egingo dute gaur, eguakitza, 18:30etatik aurrera Labegaraieta kiroldegian.

# BKEko neska-mutilen arteko azken partidua

**Futbol** denboraldiaren amaiera iritsi dela eta, BKEko talde nagusia eta emakumezkoena joan zen zapatuan elkartu ziren lagunarteko partidua jokatzeko. Jokalari guztiak hurbildu ez baziren ere, neska-mutilek osaturiko taldeek gogoz jokatu zuten Ipintzan. Emaitza 11-7 izan zen. Norgehiagoka guztiz erabakita gelditu bazen ere, penaltiak botatzeko beta izan zuten. Partiduan sorturiko giro ona aprobetxatuz, elkarrekin joan ziren afaltzera.



# IPINTZAKO futbol txapelketa



## partiduak

**NESKAK**

**Eguakitza 25**

*Kadeteak*

**19:00:** Azkenak-Aldrebesak

**19:00:** Baleike-Las 43

**20:00:** EKA-Aupa

*Nagusiak*

**20:00:** Elgetako Jaixon Berton-Pentol's Team

**21:00:** Potzu Ta Zapaburuak-Zutaz Pentsatzen

**21:00:** Onenak-Lai Lai Lai

**MUTILAK**

**Astelehena 28**

**19:15:** Altos Pornos-Black & Decker

**20:30:** Etengabe-Game Over

**Martitzena 29**

**19:15:** Mokolotov-Angiozar

**20:30:** Amilotx-Fo Fo Fo

**Eguaztena 30**

**19:15:** Matxakategi-Osintxu

**20:30:** Toyhu-Txokokuak

**Eguena 1**

**19:15:** Arloteak- VTA

**20:30:** Bildurbarek Opel Lam-Game Over

## emaitzak

**MUTILAK**

| | |
|---|---|
| Fatxurtu-Euskal Beccia | **4-0** |
| Fo Fo Fo-Matxakategi | **6-4** |
| Angiozar-Black & Decker | **2-1** |
| Etengabe-Ezinleike | **2-4** |
| Manitou-Matxakategi | **4-2** |
| A Ze Flaxa La Guipuzcoana-La Juve | **5-2** |
| Gore-Bildurbarek Opel Lam | **5-1** |
| Euskal Beccia-Arloteak | **1-4** |

**NESKAK**

| | |
|---|---|
| Baleike-EKA | **2-0** |
| Aupa-Aldrebesak | **1-2** |
| Las 43-Azkenak | **3-0** |
| Zutaz Pentsatzen-Onenak | **4-3** |
| Pentol's Team-Potzu Ta Zapaburuak | **0-7** |
| Elgetako Jaixon Berton-Biko | **0-3** |

## jokoz kanpo



**Iñaki Izagirre**
LA JUVE

**G.** Zer nabarmenduko zenuke zure taldetik. Zein da alderik gogorrena eta ahulena?
**E.** Gogo asko jartzen dugu partiduetan, oso sutsuak gara. Bestalde, fisikoki makal samar gabiltza eta lauzpabost jokalari falta zaigu; lan kontuak direla eta, ezin izan dute etorri.
**G.** Partiduetan ez zarete isilik egoten...
**E.** Horixe da gure jokoa, epaile eta marrazainei presioa sartzea. Futbol italiarra egiten dugu. Isilik bazaude, epaileek besteen alde egiten dute.
**G.** Zer helbururekin hasi zineten?
**E.** Hasierako asmoa final laurdenetarako sailkatzea zen, baina une honetan geratzen zaigun partidu bakarra irabazten ahaleginduko gara, orain arteko guztiak galdu egin baititugu. San Ferminetara ezin gaitezke hutsik joan; hiru puntu, behintzat, lortu nahi ditugu.
**G.** Orain arteko talderik indartsuena?
**E.** Gure multzoan Black & Decker. Bestalde, azkenean, betikoak izango dira aurrean: Bildurbarek Opel Lam eta Mongatxurrak. Halere, gustatuko litzaidake gazteen talderen batek ustekabea ematea eta finalerako sailkatzea.

## gora eta behera

**Gore**
Iazko txapeldunari sekulako egurra eman zion, 5 eta 1 irabaziz. Gazteak gero eta gogorrago datoz. Bestalde, Arloteak, A Ze Flaxa La Guipuzcoana, Mongatxurrak, Baleike eta Zutaz Pentsatzen ere fin dabiltza.

**Bildurbarek Opel Lam**
Joan zen urteko irabazlea eta Ipintzako historikoetako bat une larrian dabil. Golak erraz sartzen dizkiote eta egitea, berriz, kostatu egiten zaio. Aurrean egon nahi badu, asko hobetu beharko du.

## sailkapenak

**A multzoa**

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| 1. Arloteak | 12 | 4 | 16 | 1 |
| 2. Euskal Beccia | 6 | 4 | 10 | 10 |
| 3. Fatxurtu | 6 | 3 | 9 | 2 |
| 4. Toyhu | 1 | 3 | 7 | 12 |
| 5. VTA | 1 | 3 | 5 | 10 |
| 6. Txokokuak | 0 | 2 | 3 | 16 |

**B multzoa**

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| 1. Mongatxurrak | 7 | 3 | 10 | 1 |
| 2. Amilotx | 6 | 3 | 4 | 2 |
| 3. Manitou | 6 | 4 | 12 | 8 |
| 4. Fo Fo Fo | 6 | 3 | 12 | 11 |
| 5. Osintxu | 1 | 3 | 5 | 14 |
| 6. Matxakategi | 0 | 3 | 4 | 9 |

**C multzoa**

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| 1. A Ze Flaxa La Guipuzcoana | 10 | 4 | 9 | 4 |
| 2. Angiozar | 6 | 3 | 14 | 1 |
| 3. Altos Pornos | 6 | 3 | 9 | 6 |
| 4. Black & Decker | 6 | 3 | 7 | 6 |
| 5. Mokolotov | 1 | 3 | 4 | 8 |
| 6. La Juve | 0 | 4 | 7 | 24 |

**D multzoa**

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| 1. Gore | 9 | 3 | 12 | 2 |
| 2. Bildurbarek Opel Lam | 6 | 3 | 7 | 7 |
| 3. Ezinleike | 4 | 3 | 5 | 5 |
| 4. Game Over | 1 | 2 | 0 | 3 |
| 5. Etengabe | 0 | 3 | 4 | 11 |

**Neskak, kadeteak**

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| 1. Baleike | 9 | 3 | 7 | 0 |
| 2. EKA | 6 | 3 | 12 | 3 |
| 3. Las 43 | 5 | 3 | 9 | 6 |
| 4. Aldrebesak | 4 | 3 | 6 | 12 |
| 5. Aupa | 1 | 3 | 3 | 7 |
| 6. Azkenak | 0 | 3 | 1 | 10 |

**Neskak, nagusiak**

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zutaz Pentsatzen | 9 | 3 | 16 | 4 |
| 2. Lai Lai Lai | 6 | 2 | 10 | 2 |
| 3. Potzu Ta Zapaburuak | 4 | 2 | 8 | 1 |
| 4. Onenak | 4 | 3 | 8 | 7 |
| 5. Biko | 3 | 3 | 6 | 8 |
| 6. Elgetako Jaixon Berton | 0 | 3 | 2 | 13 |
| 7. Pentol's Team | 0 | 2 | 0 | 11 |

## golegileak

**MUTILAK**

1. Igor Larrañaga................*Gore*..............................**8** gol
2. Peli Iturrikastillo............*Manitou*.......................**6** gol

**NESKAK, NAGUSIAK**

1. Eva Alzas.......................*Biko*..............................**5** gol
2. Naiara Beistegi..............*Lai Lai Lai*...................**4** gol

**NESKAK, KADETEAK**

1. Amaia Osa......................*EKA*..............................**4** gol
2. Rebeca Fernandez..........*Las 43*..........................**4** gol

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***

**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

**SALDU**

Pisua salgai Huelvan, garajearekin. 943 76 40 25.

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Martoko. 943 76 37 21.

Alicanten, plaian. 10,5 milioi. 965 14 18 90.

Soraluze. Berriztua. Amueblatua. 943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

K. Eleizalde. 943 76 32 27.

Baserria salgai Angiozarren. 943 76 01 70.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m². 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Estudioa Salouko Pinedan. 943 79 11 29 (lan ordutegia).

Antzuolan, Beheko auzoan. 943 76 60 20.

Etxe berriztua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Bidekurutzetan 250 m²ko ganbara salgai. 943 76 21 80.

Pisua salgai Zubiaurren. 943 76 49 30.

**ERRENTAN EMATEKO**

Pisua alokairuan Simon Arrietan. 943 76 31 79.

Zarautz (abuztuan ez). 943 76 42 05.

Apartamentua Laredon. 943 76 44 34.

Laredon apartamentua udan. 943 79 52 80.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua alokairuan hartuko genuke urtebeterako. 943 76 29 76 (Gotzon).

## 2. GARAJEAK

**SALDU**

Koldo Eleizalde 36an. 943 76 36 34.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Ibargarai. 943 76 00 93.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

Burdiñate. 619 80 26 06.

K. Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Ibargarai. 943 76 44 25.

S. Lorentzo. 943 76 48 09.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

## 3. LOKALAK

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m2. 13,5 milioi. 943 76 11 13.

**ERRENTAN EMATEKO**

Erreformatutako lokal komertziala alokairuan San Pedron. 943 76 57 69.

Lokala San Pedron. 943 76 10 39.

Zubietan. 136 m2. 943 76 08 18.

Lokala Martokon, prezio onean. 943 76 11 13.

## 4. LANA

**ESKAINTZAK**

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila eskaintzen da lanerako. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauez. 610 01 06 19

Neska batek garbiketa lanak egin edo denda batean lan egingo luke. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak dendan lan egingo luke. 943 76 07 69.


**JOXAN**
**ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

**FRANTSES**
IRAKASKUNTZA

Ikastaro
**trinkoak**
uztailaren
5etik 23ra

Izena emateko epea:
uztailaren 3ra arte.



**Informazio gehiago:**
Mizpildi 3, 1-ezkerra. BERGARA.
Tf. 943 76 30 55
Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00

**ERREKADISTA NEGOZIOA**
**traspasatzen da.**
**Furgoneta eta ohizko bezeroekin.**
**Prezio onean.**
943 76 09 12

**SANTOS**
**IRRATI-TB**
TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA
Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Neskak umeak zaindu eta etxeak garbitu. Abuztuak 1-15 . 943 76 04 57.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsaldez).

Haurrak zaindu edo dendan lan. Uztailean. 943 76 38 90 (Amaia).

**ESKAERAK**

Umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 05 55 (gauez).

Emakume euskalduna behar da abuztuan elkarte bat garbitzeko. 943 76 41 28 (Begoña).

Arratsaldez etxeko lanak egiteko neska behar da. 943 76 54 24.

Etxeko lanetarako eta ume bat zaintzeko neska euskalduna behar da Antzuolan. 943 76 64 24.

## 5. IRAKASKUNTZA

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

OHO eta DBH. Abuztuak 16-31. 943 76 25 90.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Klase partikularrak. 943 76 17 57 (Rebeka).

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHO. 943 76 37 94.

Hezkuntza berezian diplomatuak klaseak uztailean eta irailean. 943 76 31 79.

Mate, fisika eta kimika. Udan. 943 76 59 15.

## 6. IBILGAILUAK

**SALDU**

Citroen C25 furgoneta, bolumen handikoa. 943 76 28 93 (gauez).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI. 943 76 05 96.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

R-11 GTL. 125.000 pta. Egoera ona. 943 76 37 82.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea. 943 76 29 29.

Roller Aloha karabana. 943 77 05 22 (gauez).

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Peugeot 106 (SS-AN). 943 76 51 54 (gauez).

Peugeot 306 TD. Aire egokitua. 943 76 32 20.

Seat Ibiza (SS-X). Eguzki sapaia. 943 76 31 09.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

## 7. ANIMALIAK

**SALGAI**

Ardi txakurkumeak. 943 76 36 14.

**BESTELAKOAK**

Doberman eta boxer arteko txakurkumeak opari. 649 07 97 97.

Leku itxian ohitutako txakurra opari. 943 58 50 64.

## 8. DENETARIK

**SALDU**

Kanpineko karro denda salgai. 943 76 64 65.

Eskopeta paralela salgai. 943 76 37 25.

7-10 urte bitartekoentzat bizikleta salgai. 943 76 15 76.

Minolta argazki kamara, flaxa eta Takumar objetiboa. 943 79 06 15.

Kanpinerako "Igloo" hozkailua. 943 76 41 21.

Bi ohe, idazmahaia, altzariak eta apalak. Haritz egurra. 943 76 43 37.

Kutxa erregistratzailea. 607 94 13 38 (Asier).

**EROSI**

Kitarra elektrikoa erosi nahi nuke. 943 76 27 85.

Bigarren eskuko botoidun akordeoia. 943 76 47 48.

**BESTELAKOAK**

Kotxedun pertsona behar da Bergara-Bilbo egiteko arratsaldeetan. 943 76 91 10.


**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

| | |
|---|---|
| **ADMINISTRARI TEKNIKARIA** Arabar Lautada. 19978/3 | **SUKALDARI LAGUNTZAILEA** Deba Garaia. 21333/2 |
| **ARRAIN-SALTZAILEA** Bilbo. 20285/6 | **SUKALDARI LAGUNTZAILEA** Deba Behea. 21402/0 |
| **HARAKINA** Bilbo. 20287/2 | **SKALDARI LAGUNTZAILEA** Arabar Errioxa. 21437/0 |
| **APAREJADOREA** Ibai ezkerraldea. 20298/2 | **FISIKA IRAKASLEA** Bilbo. 20904/4 |
| **BITXIGILE LAGUNTZAILEA** Ibai ezkerraldea. 20451/6 | **ELEKTRIZISTA** Arabar lautada. |
| **ENKOFRATZAILEA** Durangaldea. 20889/4 | **MEKANIKARIA** Ibai ezkerraldea. 19954/5 |
| **INSTRUMENTISTA** Bilbo. 21085/4 | **MARKETING ZUZENDARIA** Bilbo. 20151/4 |
| **KOMERTZIALA** Ibaizabal. 21260/3 | **LH II METALA** Deba Behea. 20368/2 |

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Esperientziadun SUKALDARI LAGUNTZAILEA behar da**
943 76 72 00

FRONTOI

TABERNA
Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK
RAC VASCO NAVARRO
AGENTEA-DELEGATUA
IRAEGI ASEGURUAK
*Ramon Maria Lili 6, behea*
*20570 BERGARA (Gipuzkoa)*
*Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54*
*Faxa: 943 76 41 54*
*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00*
*Larunbatetan: 9.00-13.00*

IGELTSERITZA
BIAK, S.L.
IGELTSERITZA
A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

# Bergararrak bikain dantza sueltoko txapelketan

## Lau bikote Euskadiko zortzi onenen artean sailkatu ziren domekan Zegaman

**Bergararrak bikain** aritu ziren domekan Segurako Baratze pilotalekuan jokatutako Euskadiko Dantza Sueltoko txapelketan. Bezperako kanporaketan 13 bikotek lortu zuten finalerako txartela. Eneritz Epelde eta Kimetz Larrañaga azkoitiarrek bigarren aldiz lortu zuten garaipena (352,5 punturekin), eta jarraian Nagore Ziganda hernaniarrak eta Aitzol Enak osatutako bikotea (338 puntu) sailkatu zen. Asier, Aitzolen anaia, hirugarren tokian sailkatu zen Irantzu Lizarralderekin batera (326,25 puntu). Amaia Agirre eta Jon Aranburu 5. tokian geratu ziren eta Janire Urbieta eta Xabier Azurmendi zegamarra zortzigarren.

Xabier eta Janire debutari onenak izan genituen. Baratze pilotalekua jendez gainezka egon zen domekan eta, epaimahaiak puntu-kontaketak egiten zituen bitartean, Edu Muruamendiarazen taldeak "Aukeran" koreografia eskaini zuen.





Ezkerreko argazkian, Nagore Ziganda eta Aitzol Ena; eskumakoan, Asier Ena eta Irantzu Lizarralde.



Joan zen eguakitzean zabaldu zen Aritzetari buruzko erakusketa.

## Aritzeta koroaren historiari errepasoa argazki eta prentsa artikuluen bitartez

**Kultur Etxeko** erakusgelako paretak argazkiz, egunkari zein aldizkaritan argitaratutako artikuluz, oroigarriz eta partituraz, besteak beste, bete dituzte Aritzetakoek, euren 20. urteurrena ospatzeko antolatutako erakusketan. Orden kronologikoz, urteetan Aritzetako kide izan direnen argazkiak, inguru hauetan zein atzerrian eskaini dituzten kantaldien testigantza jasotzen duten argazki eta prentsa artikuluak, han eta hemen jasotako hainbat oroigarri edota abesbatzak 20 urte hauetan izan dituen hiru zuzendarien argazkiak ikus daitezke... Domekara arte zabalik.

GASTON Y DANIELA
Oihal batek aldatzen du dena
Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 943 76 07 37

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

# Eskulan erakusketa antolatu du Bedelkarrek zapaturako

## Postuak, San Martin eta Simon Arrieta plazetan

**Eskulanen erakusketa iragarri du Bedelkarrek zapaturako. Aurten hirugarren urtez jarraian antolatzen dute; artisautzarako zaletasuna duten herriko 12 talde edo partikularren lanak izango dira ikusgai.**



San Martin eta Simon Arrieta plazetan jarriko dituzte postuak. Feria goizeko 10:30etan hasi eta eguerdiko ordubiak arte luzatuko da gutxigora behera.

Egurrez, oihalez edota gantxilloz egindako lanak eta zeramika zein pintura lanak erakutsiko dira. Besteak beste, honako hauen lanak erakutsiko dira: Ana Orgaz eta Jarduneko eskulan tailerretakoenak, jubilatuenak, Simon Arrieta zeramika taldekoenak, Izeder eskolakoenak, Koro Iraegiren eskolakoenak, Mila Elortzaren Angiozarkoenak eta Celestino Vicente, Udo Frosch eta Josean Santorcuatorenak. Bestalde, Jarduneko trikiti eskolakoek giroa alaituko dute trikitixa eta panderoekin; eta, horrez gain, Bedelkarrek Veneziara joateko bi pertsonentzako emango duen sariaren zozketa egingo da.



Besteak beste, gantxilloz egindako lanak erakutsiko dira eta, bestalde, trikitilariak ez dira faltako.

### erreseinak




Txillardegi
***Putzu***
Eleberria

Txillardegiren nobela berria 1873. urteko Donostian, bigarren karlistadan, girotuta dago. Armada liberalak menperatutako hirian bizi den Joxemari Arruabarrena "Putzu", 22 urteko gaztearen gorabeherak kontatzen dira. Bere barruko ezinegona eraman ezinda, armak eskuetan hartuta lagundu nahiko du foruen defentsan, karlistekin bat eginda. Eleberri historiko batekin itzuli da Txillardegi euskal literaturara: zehaztasun historiko eta geografikoz ongi dokumentatuko nobela.

*- Elkarlanean. 385 orr. 2.950 PTA*




Fermin Muguruza
***Brigadistak Sound System***
Reggae

Fermin Muguruzaren azken lana hizkuntzen mestizajearengatik nabarmentzen da, euskara, gaztelera, italiera, frantzesa, ingelesa, maputxea eta kurdua entzun baitaitezke. Bere bakarkako lehenengo lana izan arren, hainbat eta hainbaten laguntza izan du. Gainera, hiru kontinentetako 10 toki ezberdinetan grabatu ditu diskoko 14 kantuak. Guztietan reggae erritmoak dira nagusi, baina roots, rock-steady, dancehall, ska, dub, raggamuffin, jungle eta hip-hop doinuak ere ageri dira. Hizkuntza, erritmo eta soinu aniztasunak definitzen du, beraz, Brigadistak Sound System.

*- Esan Ozenki. 2.200 PTA*

**BERGARA**
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

**ETXEPARE-BILINTX**
**LIBURUDENDA**
Liburuak eta diskoak
Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

## denborapasa / LUMA



### Ezker eskuma

1. Neskatoak. 2. Poztasuna. 3. Haizen horrek. Estrontzioa. Edari alkoholdun. 4. Ekialdeko erlijio-irudiak. Zapiaren erdian. 5. Luzera-neurria. Naizen hau. Bokala. 6. Oparotasuna. 7. Nafarroako ibilgailuetan. Bururatu. Bokala. Kontsonentea. 8. Daude. Lauso. 9. Eako biztanle. Esperoan. Baerrogeita hamar. 10. Nor, pluralean. Barazki-mota. Infusio-mota.

### Goitik behera

1. Nahikaria. 2. Jakiak. 3. Sakonera handikoa. Kontsonante bikoitza. 4. Modu atzizkia. Ugaria. Kontsonantea. 5. Emakume zahar. Idi, hitz elkarketan. Herri hizkeran, zer. 6. Pluralean, armiarma izugarria. 7. Islandia. Suari dariona. Herri giputza. 8. Lurralde. Lurrin. 9. Artzainen janari-kopurua. Uranioa. Kontsonantea. Tona. 10. Kanpaiak jotzen dituena.

### Soluzioa

*Ezker eskuma*

*1. Neskatilak. 2. Alaitasuna. 3. Hik. Sr. Ron. 4. Ikonoak. Ap. 5. Kana. Neu. A. 6. Ugaritasun. 7. Na. Otu. A. J. 8. Dira. Laino. 9. Ear. Zain. L. 10. Ak. Leka. Te.*

*Goitik behera*

*1. Nahikundeak. 2. Elikagaiak. 3. Sakona. Rr. 4. Ki. Naroa. L. 5. Atso. It. Ze. 6. Tarantulak. 7. IS. Kea. Aia. 8. Lur. Usain. 9. Anoa. U. N. T. 10. Kanpanjole.*

# bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Europako hiriburu batek bezalako izena dauka etxe honek. Zein da?***

# galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein izango da datozen lau urteotan Angiozarko alkate berria?
A- Gorka Elortza
B- Mila Elortza
C- Jose Angel Mikeo

2. Zein da joan zen domekan Aneto X-trom maratoian aritu zen bergarar bakarra?
A- Iker Etxeberria
B- Iñaki Eraña
C- Xabier Lijo

3. Loiola Rallyan arituko den bergarar bakarrak zer auto erabiliko du?
A- Triumph Spiffite
B- Aston Martin Lagonda
C- Fiat 1500 Monza

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Sirimiri** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Beni Perez**entzat izan da: Azpeitxi jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Beniri! Galderen erantzun zuzenak:
Bonofotoa: **oihala**
Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-C**

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ______ *2:* ______ *3:* ______

Izen-deiturak: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

SIRIMIRI
JATEXEA
Barrenkalea 3. BERGARA
Tf. 943 76 59 19

**Jabier Mendizabal bere gizonarekin bikotia osatuta, Gipuzkoako Dantza Suelto-ko txapelketia irabazi zeban 1966an. Zenbait urtetan dantza irakaslia izan da eta oraiñ Aritzeta abesbatzako partaidia da. 22 urte daroia Mankomunitatian lanian.**

# Maite Barrena

**Euskadiko Dantza Sueltoko Txapelketan egon ziñen domekan?**
Ez, gabian telebistatik ikusi neban.
**Epailien erabakixarekin ados?**
Bai. Dana dala, penia ematen dost Bizkaiko bikote batek bere dantzia aldatu bihar izatia sariren bat irabazteko.
**Epaile lanetan egon zanian, zer da gehixen baloratzen dozuna?**
Konpasian dantzan egitia, mekanikoki dantzatzen dabenak ez jat gustatzen.
**Zeintzuk die dantzarako biherrezko kualidadiak?**
Belarrixa, erritmua eta agilidadia.
**Zein diferentzia dago lehengo eta gaurko dantzarixen artian?**
Oinguak hobeto gertauta dare baina naturalidade faltia somatzen dot.
**Oingo bikote bat?**
Asko dare. Azkoitia, Lezo eta Bergarako eskolakuak, Hernanikuak, bizkaieraz dantzatzen dabenak...
**Fandangua ala arin-ariña?**
Fandangua.
**Dantzari jantzixa, zein kolorekua gustatzen jatzu?**
Segun zein dantzarako, baiña gorrixa gustatzen jat neri.
**Zela hasi ziñen Aritzetan?**
Lagunak eta ahiztia neuzkalako bertan eta kantatzia beti gustatu izan jatelako.
**Zelako musikia gustatzen jatzu?**
Klasikua eta melodikua gehixen.
**Kantari bat?**
Gilbert Becaud, Moustaki, Benito Lertxundi...
**Betiko kantu bat?**
"Ne me quitte pas", Jacques Brel-ena.
**Dutxan abesten dozu?**
Ez.
**Musikia entzuteko ordurik onena?**
Edozein ordutan entzungo neuke.
**Etxeko lanik gorrotagarriena?**
Sukaldia.
**Janari eta edari bat?**
Legatza eta ardo zuri on bat.
**Kolore bat?**
Urdiña.
**Bizitza zein kolorekua ikusten dozu?**
Ez naiz jarri pentsatzen...
**Mania bat?**
Koadruak ezin dittut okertuta ikusi.
**Askotan ikusi izan dozun filme bat?**
"Memorias de Africa".
**Bestiengan gehixen apreziatzen dozuna?**
Emondako hitza mantentzia.
**Loterixan 200 milioi irabazi ezkero...**
Gustatzen jaten gauzei denbora gehixago emon.
**Zer egingo dozu udako oporretan?**
Pirinioetara juan. B








# Antzuolako Estala futbol zelaian, 1958

Liga txapelketa amaitu berri da profesionalen zein beheko mailetan; baina futbola ez da amaitu, Bergaran, behintzat, Ipintzako txapelketa gori-gorian daukagu.

Herri mailan, uda partean bereziki, antolatzen diren koadrilen arteko futbol txapelketak ikusmin handia sortzen dute han eta hemen; eta Bergaran bezala, Antzuolan ere antolatu izan dira.

Aste honetako argazkia 1948. urte ingurukoa da, bi koadrilen arteko desafioaren atarian ateratakoa. Sasoi hartan horrelako asko egiten ei zituzten. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita.

**Zutik:** Andres Toledo, Jose Mari Larrañaga, Genaro Laskurain, ezezaguna, Remigio Laskurain eta Juanito Kortabarria "Arlutz txiki".

**Makurtuta:** Jose Luis Errasti, Eusebio Gabilondo, Jose Luis Lezeta eta Jose Luis Kortabarria "Gorri".

*Argazkia: Jose Luis Kortabarria*

**ADI!**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu.
Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25



Izaera berezia eta bakarra, pertsonalitate polifazetikoa

MULTIPLA

FIAT

MARKIEGI autoak

FIAT

Alfa Romeo

Leizeaga 1. BERGARA. Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76



LAKET



LAKET

Barrenkalea 35. Tf. 943 76 03 98




LAKET Txiki eta LAKET Emakumezkoak

Irala 5. Tf. 943 76 37 41

Txiki LAKET

LAKET Emakumezkoak

Emakume, gizon, ume eta gazteendako

**imajina dezakezun erropa dena zeure eskura.**

Eta marka onenak!






Grupo Nortekar

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BILBOCASION | AUCASA | ALDIAK | ALDIBI | ALDIBI | ALDIKAR ALMOVIL | ALDIKAR ALMOVIL |
| Jaen, 11 | P. Larramendi, 10 | Mallabiena auzoa, 4 | Zigarrola, 1 | Olaso pol., z/g | Colon pas., 27 | Oria etorbid |
| Tel.: 94 410 16 61 | Tel.: 94 410 39 39 | Tel.: 94 681 67 66 | Tel.: 943 71 20 02 | Tel.: 943 74 20 37 | Tel.: 943 27 09 99 | Tel.: 943 27 |
| BILBO | BILBO | IURRETA | ARRASATE | ELGOIBAR | DONOSTIA | LASARTE |